



ARGIA

Amaieur 500 urte

BURUJABETZAREN IKURRA

26-31. orriak

#2.783 | 2022 / 06 / 19 | 4,00 €



**Eskuin muturra
eta ekologia
baturik**

12 | EKOFAXISMOA



**"Interes pribatuei
ibaiak oparitu
dizkiegu"**

16 | BELEN AUSEJO



**Iñaki Azanza,
txirrindularitza
argazkitan**

32 | KIROLA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #275

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO ERRENTA

DUIN BIZITZEKO ESKUBIDEA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 21 | ASIER BLAS MENDOZA
- 22 | BEA SALABERRI
- 23 | ANDREA BARTOLO
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | INMA ERREA

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: BEÑAT JUSUE
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: XABIER SAGASTA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



ANDER LEON

32 | AMELIA TIGANUS

prostituzioaren abolizioa borrokatzen duen puta elkarrizketatu du Ander Leonek. "Prostituzioa ez da lanbide bat, esplotazio mota bat baizik" aldarrikatu du, eta putetxeen barruko joko arauak eta gizarteak egiten duen ezekusia azaldu ditu.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Faxismoa berdetzen duen gaitza dugu ekofaxismoa

Jenofa Berhokoirgoien

16 | PERTSONAIA | BELEN AUSEJO

"Presa handiak eta urtegi erraldoiak nekazaritzarako ezinbestekoak direla hidromito bat da"

Reyes Ilintxeta

26 | HISTORIA | AMAIUR

Sinbolo baten birsorkuntza

Urko Apaolaza

35 | HEZKUNTZA

EAEko DBHko ikastetxe batzuek jardunaldi jarraia eskatzen dute

Estitxu Eizagirre

36 | KIROLA | IÑAKI AZANZA

"Ziklismoaren bidez herri baten historia konta daiteke"

Jon Torner

44 | KULTURA | ANE LINDANE

"Epaitegiak eta komisaldegia dira nik umore gehien egiten dudana tokiak"

Aitor Aspuru

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Maddi Viana, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

 komertzial@argia.eus
 komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



Napalm girl

Duela 50 urte, 1972ko ekainaren 8an, AEBetako armadak napalm bonbez eraso egin zion Hego Vietnamgo Tran Gang herriari. Phan Thi Kim Phuc, 9 urtekoa, korrika doa errepidean ihesi, izua hezurretaraino sartuta duten herriko beste ume batzuekin batera. Bere arropa errauts bihurturik eta lepoa, bizkarra eta ezkerreko besoa sutan dauzka. APko argazkilari gazte batek, Nick Ut vietnamdarrak, une hori bilakatu zuen XX. mendeko gerra inperialisten aurkako ikur. 'Gerrako terrorea' jarri zion izena. Bereziki krudela izan zen guda luze hori, baita herrien autodeterminazioaren aurkako kolperik gogorrenetako bat ere. Milioika biktima eta ingurumen-kalte ikaragarria eragin zituen, baina AEBei eragindako porrotak ezbaian jarri zuen munduan barrena gobernua eta herrialdeak nahieran egiteko eta desegiteko yankiek zuten zigorgabetasuna –gaur egunera arte heldu dena–. Irudian, Kanadan –asilo politikoa eskatu zuen han– bizi den Kim Phuc, haren argazki ezagunaren aurrean.



Macronen Ensemble eta Mélenchon en ezkerreko aliantza, aurrez aurre

ERREDAKZIOA

Frantziako Legebiltzarrerako hauteskunde lehen itzulian, Emmanuel Macron gaur egungo presidentearen koalizioa izan da bozkatuena Ipar Euskal Herrian: Ensemble-Majorité Présidentielle. Bigarrena NUPES ezkerreko aliantza izan da. EH Bai hirugarren geratu da eta ez du lortu bigarren itzulira ordezkari irigortzerik. Hala ere, nabarmen egin du gora 2017ko bozkekin alderatuta. Orduan 12.778 lortu zituen eta aurten 16.385 izan dira.

Bi itzuli ditu Frantziako Legebiltzarrerako hauteskundeak eta joan den igandean iragan da lehena. Hautesle zerrendan inskribatuen botoen %12,5 jaso dutenek ukan dute bigarren itzulian kartzeko aukera. Hiru bozka-barruti dira Ipar Euskal Herrian, eta bertako hiru diputatuen izenak argitu dira.

Laugarren hautesbarrutian Annick Trounday (Ensemble) eta Iñaki Etxaniz (NUPES) igaro dira bigarren itzulira. Bosgarrenean, Sandra Pereira (NUPES) eta Florence Lasserre (Ensemble) eta seigarrenean, Vincent Bru (Ensemble) eta Tom Dubois-Robin (NUPES).

Abstentzioa %50etik gorakoa izan da lehen itzuli honetan estatu mailan. Ikusi beharko da bigarren itzulian zein eragin duen horrek

Lapurdiko hiriak bosgarren eta seigarren bozka-barrutietan banatuak dira

eta laugarrenak Nafarroa Beherea eta Zuberoa biltzen ditu Biarnoko zati bat ere elkartuz -Nafarroa Behereko herri bakar batzuk bosgarrenari lotuak dira ere-.

Abstentzioa %50etik gorakoa izan da lehen itzuli honetan estatu mailan. Ikusi beharko da bigarren itzulian zein eragin duen horrek.

BOZ KOPURUEI BEGIRATUZ

Ipar Euskal Herriko emaitzei begiratu-ta, Ensemble geratu da lehen 43.188 bozkekin, NUPES bigarren 33.020 bozkekin, Batasun Nazionalak hirugarren 17.019 bozkekin eta EH Bai laugarren 16.385ekin. Eskuin muturreko Errekonkista alderdiak 6.442 boz erdietsi ditu Iparraldean eta 23.461 pertsonak egin dute eskuin muturreko alderdiren baten hautua Ipar Euskal Herrian. ●



Ezkerreko koalizioko buru Jean-Luc Mélenchon eta egungo presidente Emmanuel Macron.

Itzulera etengabea



ARITZ GALARRAGA

MZk nik baino hobeki esplikatzeko baitu –eta Senekak baino, gaurkoago–, esan dezagun harekin, baiki, betirako bagina bezala bizitzeko joera dugula, joera tentela. Eta, halaber, heriotza gure bizitzatik egoztekoa. “Gure gizarteek herio usaineko edozer ezkutatu eta kanporatzen dute”, dio MZk: “Berriki arte, zaharrak etxean zeuden, eta itzaltzen zihoazen bitartean bizitza biloben bitartez berritzen ikusten zuten. Ontsa hiltzeko bide bat zen. Aldiz, orain, zahar-etxeetan, bertakoak elkartzen dituen bakarra da berehala hil behar dutela. Horregatik dute zahar-etxe askok beilatoki eta are errausketa-labe kutsu nabarmena”. Ordea, arazo dirudiena, ondo begiratuta, “zorte handia da, sakonki bizi nahi izatera bederen, hil behar dugula egunero gogoratzea”. Bizitzeaz hiltzen gara, zioen Axularrek, eta hiltzeaz bizitzen.

Nietzschekek badu pasarte bat, bestalde, ospetsu bilakatu dena honezkero, zeinean imajinatzen duen deabru batek proposatzen diola bizitza amairik gabe bat bizitzea, baldintza batekin, hori bai, behin eta berriro hastea, orain artekoa bezala, detailerik txikiena aldatu ezinik: “Bizitza hau, orain bizi duzun bezala eta bizi izan duzun bezala, beste behin ere bizi beharko duzu eta ezin konta ahala aldiz, eta ez da ezer berririk izango bertan, baizik eta oinaze eta plazer bakoitza eta pentsamendu eta hasperen bakoitza eta zure bizitzako txiki eta handi guztia zuregana itzuli beharko da segida berean. Eta era berean armiarma hau eta ilargi-argi hau zuhaitzen artean, eta era berean une hau”. Itzulera etengabea. Prest egongo zinateke? Adèle Van Reeth, arrapostuan: “Ezustekorik ez, inprobisaziorik ez, aldaketarik ez. Ideia jasanezina da”.

Deabruak erakutsiko liguke, hartara, egia gordin bat. Orain daramazun bizimodua da eraman nahiko zenukeena? MZ, berriaz: “Bizitzak ez du inongo xederik. Eta, hain zuzen, horrexek bilakatzen du bizitza bikain eta liluragarri (...) geure esku dago bizitza nahi adina helburuz eta esanahiz hornitzea”. ●



ADUR

Polizia

Infiltratutako Espainiako Polizia bat agerian utzi du *Directa* hedabideak. 29 urteko agenteak bi urtez honako herri mugimenduetan jardun du: Ikasleen Sindikatua, etxebizitza eskubidearen aldeko Resistim al Gòtic, eta ezker independentistaren Odenako Casal Popularrean.

Tortura

Eusko Jaurlaritzak egindakoaren antzera, Nafarroako Gobernuak astelehen goizean iragarri du herrialdean indar polizialek herritarren aurka erabilitako torturari buruzko txosten ofizialari argi berdea eman diola. Nafarroako Torturatuen Sarearen eskaera nagusietako bat zen.

Migrazioa

Erresuma Batuak migratzaileak hegazkinen kanporatuko ditu herrialdetik. Ruandara bidaliko dituzte eta bertan errefuxiatu moduan hartuko dituzte, bi herrialdetako gobernuek hala adostuta. Hegazkin horiek gelditzeko elkarretaratzeak antolatu dituzte aste honetan.

Saridunak



ULA IRURETAGOIENA

Badago euskal gazte arkitektoen lana omentzen duen sari bat: Peña Ganchegui Saria. Arkitektoek arkitektoei ematen dioten beste sarien antzera, arkitektura ulertzeko eta egiteko modu bat legezkatzen dute, eta askotan, garai bateko arkitektura deskribatzeko gai dira. Eta gainontzeko sarien antzera, lan berriren baterako atea ireki lezake, lanean jarraitzeko piztzaile izan daiteke, ospea ekar lezake, bozgorailu lana egin lezake, saridunen handikeria elikatu lezake, dirulaguntza bat izan daiteke, eta beti, kurrikuluma ongi apainduko du. Saria emateko lekua berriz, norbaiten alde irizpena emateko leku den unetik, beti izango da botere-gune bat.

Peña Ganchegui Sariak honela definitu du "euskal" izatea: arkitektura-bulegoa Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik egotea edo arkitekto titulua gure lurraldean eskuratua izatea. Eta "gazte" kategoria, titulua 2011 urteaz geroztik eskuratua izatea, hau da, taldekako edo banakako lanak azken hamar urteotako lanak izan daitezela. Euskal arkitekto gazteak bere burua aurkezten du sari honen hautagai izateko eta 20 euro ordaintzen ditu. Saridunak berriz 6.000 euro eskuratzeko. Baldintzok ongi definitzen dituzte arkitektura profesioaren koordinadak. Sariak ibilbide bat nabarmendu nahi du, eta *influencer* lana bete, gailentzen ari den euskal arkitekto taldea identifikatuz. Azken urteko sariduna, Ocamica-tudanca arquitectos taldea izan da.

Eta saridunak nolako bizitza du saritutako ibilbidea gauzatu ahal izateko, markatsua izan al da? Zein erraztasun eta laguntza izan du? Arkitektura bikaina urteetan mantentzeko, zer nolako esfortzua suposatzen du eta zein egoera ekonomikorik sostengatzen du? Gazte izateak, zein *handicap* du arkitektoarentzat? Saridunaren esperientziak, purpurina jantziaren ondoan, kolektiboaren argi-ilunak amankomunean eta eztabaida mahaira ekartzeko balio lezake? Sariak, arrakasta indibiduala zaintzeaz gain, profesioaren alderdi deseroagoak argitara emateko balio lezake? ●



Hauteskundeak, Mercedesera

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Berri ona ospatu da nonahi: Mercedeseko zuzendaritzak Gasteizko lantegian 1.200.000.000 euro inbertitzeko proiektua du. Inbertsioak Arabako lantegi handienaren -5.000 lanpostu zuzen, 30.000 inguru zeharkako- jarduna ziurtatuko omen luke "hamarkadetarako". Dirutza munduko industria ekoizdetako bat indartzeko, hori da bai une historikoak eskatzen duena. Baldintza xume bakarra jarri du enpresaren zuzendaritzak -kasualitatez, lan-hitzarmen berriaren negoziazio bete-betean-: langileek "malgutasun" handiagoa onartzea.

"Malgutasuna" Mercedesen zertan haragiztatzen den pedagogikoki azaltzen du Ruben Sánchezen *Alea*-ko Mercedes, *ispilu aurrean* erreportajeak: lan erritmo gero eta itogarriagoak, legez kanpoko kaleratzeak, jazarpena sindikatu eta langile deserosoen aurka, finko bihurtu ditzaten UGTra afiliatzen diren langileak, ondorioen beldur beren sare sozialetatik manifestazioen argazkiak edo presoek ikurrak ezabatzen dituzten langileak, jazarpena euskaraz aritzeagatik... "Beste enpresa handi samar batzuetan lan egin dut, eta inon ez dut ezagutu Mercedesekoa bezalako jazarpen sozio-politikorik", dio langileetako batek. "Lan-malgutasunaren mesedetan eskubide asko galdu" dituztela diote aho batez ELA, LAB eta ESKko ordezkariak.

Gasteizko eta Arabako agintari politikoei galdu ezin den aukera dela azpimarratu dute. Demokraziaren ordezkari izanik, "malgutasuna"ren eta eskubideen arteko lehian lehenbizikoaren alde egingo dutela pentsa zitekeen. Edo ez.

Arabako diputatu nagusi Ramiro Gonzálezek eskatu du langileek eta enpresak "diskretuki" negoziatu dezatela, afera "eztabaida publikora" atera gabe: "Eztabaida edo gatazka sortzea ez da ona, erabakia hartzen den tokian [enpresan] entzun egiten delako, eta baloratu" -bide batez, oso ona "eztabaida publikoa" eta "gatazka" oharkabe bezala parekatze hori-. Gasteizko Alkate Gorka Urbaranek argi utzi du proiektua babesteko dutela erakundeek, hori bai, "enpresa eta langileen arteko akordioa gakoa" dela azpimarratuz. Langile-enpresari akordioak nola ulertzen dituen bikainki laburbildu zuen 2021eko azaroan, besteak beste autogintzaren industriari eman beharreko laguntzez ari zela: "Sindikatuak tentsioa sortzen ari dira eta horrek [enpresentzat] erakargarriago izatea zailtzen digu". Nahikoa ez, eta lehendakariak bi egun behar izan ditu iragartzeko Alemaniara bidaiatuko duela pertsonalki, Mercedesen buruari ziurtatzeko euskaldunak erakargarriak eta malguak garela, eta are erakargarriago eta malguago ere izan gaitzkeela, enpresa barnean zein erakundeetatik.

Foru eta udal hauteskunde giroa dago jada, alderdiak hasi dira beren hautagaiak aurkezten, "boterea" helburu. Eta formalkeriak eta antzerkiak alde batera utzi eta hauteskundeak benetako botere guneen osaera erabakitzeke antolatzen baditugu? Nafarroan Volkswagen, EAEn Iberdrola, Elkargoan Dassault... Araban eta Gasteizen, Mercedesen administrazio kontseilua osatzeko foru eta udal hauteskundeak, ja! ●

1/4

da gaur egun Espainiako Estatuak kontsumitzen duen gas guztitik Aljeriatik datorrena. Aljeriak Espainiarekin duen adiskidetasun ituna bertan behera utzi du eta horrek nabarmen eragingo die bien arteko harreman komertzialei.



420,99

zati milioiko CO2 erregistratu dute atmosferan, planetaren berotze efektuak hartu duen joera arriskutsuan errekor berria ezarriz. Iraultza industrialaren eta erregai fosilen aurretik, 6.000 milioi urtez 280 zati milioiko CO2 maila mantendu du planetak.



10

urteko espetxe zigorra agindu dute Bolivian presidente auto-izendatu zen Jeanine Añez senatari ohiaren, Williams Kaliman Indar Armatuetako komandante ohiaren eta Yuri Calderon Poliziako komandante ohiaren aurka, estatu kolpea ematea egotzita.

“Gure ikasleenganako elkartasunez erabaki dugu zuzenketetara ez joatea”

Brebeta zuzentzeari uko egin dio Seaskako irakasle talde batek, ikasleek brebeta euskaraz egiterik ez dutela salatzeke.

2022-06-08

“JAURLARITZAK AGERIAN UTZI DU LEHEN ARRETA DESEGITEKO ETA GAINERAKO ARRETA MAILAK PREKARIZATZEKO BORONDATEA”

Osakidetzako murrizketak salatzeke, ekainaren 26an manifestazioa deitu dute LAB, SATSE, ELA, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek.

2022-06-10

“Gure kaleetan, bostehun pertsona baino gehiago daude etxebizitza bat eskuratzeko inongo aukerarik gabe”



Migratuen eta arrazializatuen kolektiboek eta elkarri laguntzeko sareek eta kolektiboek kalean egin dute lo Euskal Herriko hainbat txokotan, harrera duina aldarrikatzeko.

2022-06-08

TEKNOLOGIA

Norentzat sortzen dugu?



DIANA FRANCO

Haurrek badute, eta zenbait nagusik ez dugu galdu, sorkuntzan murgiltzeko joera. Agian, sorkuntzan murgiltzeko joera dugun guztiok ez ditugu lan ederrak egingo, baina uste dut esperientzia antzekoa dela: hor zaudenean, mundu honetan bizitza on bat izateko gauza asko alde batera utzi ditzakezu: familiaren zaintza, gorpuztaren osasuna, harremanak, bizilekuaren zaintza... Ez da erraza sorkuntzan murgiltzea eta “bizitza on bat” batera izatea, behintzat zure bizimodua sortu nahi duzun horri guztiz lotuta ez baduzu eraikitzen.

Eremu digitalean dabilzan sortzaileen pentsatzen dudanean, hiri, herri, baserri, enpresa, liburutegi... bateko gela txiki bateko mahai batean irudikatzen ditut, edozein sortzaile bezala ordu ugari ematen bakar-dadean euren lanak aurrera atera nahian: musikagintzan, diseinugintzan, testugintzan, kodegintzan, datugintzan, podcastgintzan, bideogintzan, bideo-jokogintzan, argazkigintzan, saregintzan, elektronikan... Sortzaile horien lanak egiten du eremu digitala, eta eragiten du gure gizartearen eraldaketan.

Kobazuloa datorrit burura: antzinako kobazuloaren ideiak, nire ustez, ez zuen bakardadearekin zerikusia, sorkuntzaren helburuarekin baizik. Paleolitoko “arte” espresioetan, kobazuloan ematen zirenak, gizakumeak norberarentzat marrazten zuen, norbere barruak islatzeko modua zen, besteen begiradetatik urrun. Noizbait, beharbada, norbait ohartu zen barruko isla horiek besteentzat ere interesgarriak izan zitezkeela, eta sorkuntza besteengan pentsatzen ere egiten hasi ginen. Denborarekin, sorkuntza baten zentza beste onarpenera baldintzatuta geratu da neurri handi batean. Eremu digitalean, izaera hori areagotu egin da eta arrakasta bilakatu da sorkuntzaren izaera nagusia. Komunitate eta gizartearen orde, algoritmoak dira arrakasta izateko zer sortu agintzen dutenak. Hasieran norberarentzat, gero komunitatearentzat, azkenean algoritmoentzat sortzen gabiltza. Errealitate honetan, batzuetan kobazulora bueltatzeko gogoak datozkit, baina momentuz joan-etorrian nabil. ●

NAZIOARTEA



Kolonialismoaren zuriketa

AXIER LOPEZ

Munduko herrialde askotan Black Lives Matter mugimenduaren bultzadaz arrazakeriaren aurka egindako mobilizazioei esker, gero eta jende gehiago ari da ezbaian jartzen potentzia kolonialen iragan iluna, segida neokoloniala eta haien justifikaziorako diskurtso garaikideak. Hainbat herrialdetan botere politikoa “egoera berrira” birmoldatu beharrean izan da. Formalki bada ere. Horietako kasu bat pasaden astean Kongoko Errepublika Demokratikoan Belgikako errege-erreginak antzeztu dutena da.

Belgikako Felipe II.ak lehen bisita ofiziala egin du Kinshasara. Hegazkinetik jaitsi eta alfonbra gorri baten gainean desfilatu du musika, dantzari eta Kongoko egungo buruzagien aurpegi alaien artean, Felix Tshisekedi presidentea buru. Belgikako erregea ez da gai izan barkamena eskatzeko eta, are gutxiago, Kongon egindako genozidioagatik inolako erreparaziorik aipatzeko ere; noiz eta eztabaida dekoloniala bizi-bizirik dagoen bere herrialdean eta garai kolonialen omenezko ikurrak kaletik kentzen ari direnean.

“Nahiz eta belgikar askok Kongo biziki maite zuen, erregimen koloniala esplotazioan eta zapalkuntzan oinarrituta egon zen”. Belgikar bakar batek ere bozkatu edo aukeratu ez duen erregearen hitzak dira. Kongo Belgikaren menpe egon da urte luzez 1960 arte. 1885etik 1908ra, Felipe II.aren herenaitonaren anaia Leopoldo

II.aren jabetza pribatua izan zen. Hau da, urte horietan Kongo ez zen Belgikaren kolonia izan, pertsona bakar baten jabetzapean erregistratutako herrialdea baizik. Leopoldo II.aren garaian, kongotarrak esklabo gisa erabili zituzten baliabide naturalen ustiapen masiborako, erregealdiko bereizgarritasunetako bat izan zen kongoarrei eskuak masiboki mozte.

Felipe II.ari egindako ongietorrian, askok Belgikako banderak haizatu ditu, eta Kongoko agintari nagusiek bi herrialdeen arteko “historia komunaz” hitz egin dute. Oposizioko politikari batzuen jarrera oso bestelakoa izan da. Francine Muyumba Nkanga senatariak, adibidez, esan du damu publikoak ez direla nahikoa Belgikak egindako krimenen aurrean.

Hori bai, erregeak opari bat eraman die kongotarrei. Kinshasako museo nazionalera egindako bisitan Suku etniaren maskara bat eman die, edo, hobeto esanda, Belgikako erregimenak Kongon lapurtu zituen milaka objektu eta erlikietako bat itzuli die.

Hamarkada luzeetako arpilatzea, arrazakeria, indarkeria eta maila imajinaezinera eramandako krudelleria zuritu nahi izan ditu errege batek “sentitzen dut” eta “deitoragarria izan zen” esanda. Bien bitartean, Kongon, Afrikan kolonia izandako herrialde gehienetan bezala, garai kolonialetatik datozen muturreko pobrezia eta indarkeriak enkistatuta jarraitzen dute. ●

Eskola Txikien Jaiak Maria Dolores Agirreren ibilbidea taularatu du

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Ekainaren 12an egin da Eskola Txikien 34. jaiak, Errezilen. Hilabetetan landutako egitarauaren parte, 5. eta 6. mailako ikasleek antzerkia eskaini dute: Errezilen jaio zen Maria Dolores Agirre idazle, irrati esatari eta euskara irakaslearen bizitza taularatu zuten.

Errezilek Eskola Txikien Festa hartu du herrian, bigarren. 1995ean antolatu zuen lehen aldiz Gipuzkoako Eskola Txikietako ikasle, guraso eta irakasleen topalekua den jai hau. Garai hartan haur eta gaztetxo moduan festa gozatu zutenek, guraso edo herritarren arduratik bizi dute aurtengoa. Hilabete luzetan egin duten "lankidetzeta eta auzolana" balioan jarri dute Oihana Trula gurasoak eta Irati Manzisidor Eskola Txikietako

irakasleen ordezkariak: "Herri lana. Auzolana gailendu da ikasturte osoan zehar, gure artean. Eta pozik gaude egingako bidearekin. Pozik eta esker oneko, gainera, Gipuzkoako eskola txikietako irakasle, ikasle eta gurasoengandik ere jaso dugun erantzun bikainarengatik".

54 IKASLE, ADIN ANIZTASUNEAN

2-12 urte bitarteko 54 ikasle ari dira egun Errezilgo eskolan. Adin ezberdinetakoen arteko elkarrekintza da eskola txikien ezaugarria, eta hala ari dira Errezilen ikasten duten Haur Hezkuntzako 19 ikasleak eta Lehen Hezkuntzako 35ak. 1995ean Errezilgo erdigunean kokatu zuten eraikinean ari dira egun, baina Errezilgo eskolaren ibilbidea luzea

dela eta bere garaian auzo eskolak izan zirela ekarri dute gogora antolatzaileek.

"Errezilen dugun eskola txikiari esker gure haurrei euren herrian hazi eta hezteko aukera eskaintzen diegu. Adin ezberdinetako ikasleen arteko harremanetan murgiltzen dira, euren jaioterrian kokatuta abiatzen dira ikaskuntza prozesua garatzen, eta harremanetan sakontzeko aukera ematen diegu herriarekiko harremanetan" azpimarratu du Oihana Trulak. Miryam Urrutibeaskoa zuzendariak, berriz, eskola publiko honen ezaugarriok nabarmendu ditu: "Aukera berdintasuna eta inklusibotasuna bultzatzen ditu; hurbiltasuna, aniztasuna eta kohesio soziala erdigunean jarri nahi dituen da San Martin eskola". ●

"Trebilnu Araba da, Trebilnu euskara da"

ERREDAKZIOA

Lehenengo Araba Euskaraz egin zenetik 40 urte bete diren honetan, Trebilnuko Argantzun ikastola izango du ardatz aurtengo jaialdiak, ekainaren 19an. "Zortzi ikastola gara Araban, Ikastolen Elkartearen baitan bildurik. Zortziak bat egingo dugu, Argantzun ikastolaren alde. Trebilnu baitugu zortzigarren kuadrilla, Trebilnu baitugu zortzigarren alaba".

Hainbat helburu ditu aurtengo Araba Euskarazek. Batetik, Araban euskararen erabilera aldarrikatzea, bultzatzea eta zabaltzea da asmoa; bestetik, bai Argantzun ikastolaren lana bai Trebilnun irekitzekoak diren Sagastietako ikastola

berria ezagutzera eman nahi dute; eta hirugarrenik, ikastola berri hori egiteko dirua lortzea dute erronka. Argantzun ikastolak bi eraikin ditu eta bigarren hori herritarrek utzitako lokalak dira, harik eta ikastola berria eraiki arte. Datorren ikasturtean zabaldu nahi ditu ateak Sagastietak. 2003an sortu zen Argantzun ikastola. Ordura arte, bertako haur gehienek Gasteizerako bidea hartzen zuten ikasketak egitera; horixe zen euren haurrek euskaraz ikastea nahi zuten gurasoen hautua. Bide malkartsuaren ostean, baina, ikastola lortu zuten Trebilnun, eta gaur egun 67 ikasle ditu eskolak.

1981eko ekitaldirako Nestor Basterretxeari enkargatu eta hark eginiko leloa eta logotipoa oinarri hartuta landu dira 2022ko ekitaldirako leloa eta logotipoa. "Ara, zazpi talde, bat euskararen alde" izan zen orduko leloa. Arabako zazpi kuadrillei egiten zien erreferentzia. 2022koa, berriz, "Zortzigarren alaba" da.

OLARIZURA ITZULIKO DA JAIA

Argantzun ikastola ardatz izango duen arren, jaiak Gasteizko Olarizun ospatuko da, hiriburuko Eratzun Berdean, ekainaren 19 honetan. Berrogei urte bete dira, lehenbiziko Araba Euskaraz egin zenetik, Olarizun hain zuzen. ●

BABESLEA:

UeMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera...
arnasa gara, euskaraz gara!

FAXISMOA BERDETU ETA EKOLOGIA IKUSPEGI FAXISTAREKIN AZTERTZEN DUEN GAITZA DUGU **EKOFAXISMOA**

Écofascismes (“Ekofaxismoak”) liburua argitaratu berri dela, ekologia eta faxismoa uztartzen dituen ekofaxismoari so egiteko tartea hartu dugu, ideologia horrek dakartzan arriskuez kontziente. “Ekologiaren faxistatzea” eta “faxismoaren ekologizatzea” identifikatzen ditu liburuaren idazle den Antoine Dubiau antifaxista eta ekologistak: elkar elikatzen diren bi helburu juntatzen ditu ekofaxismoak. Klima larrialdia okertuz doala, ekologia ezkerretik eta justizia soziala helburutzat harturik eramandako borroka dela ohartarazteko betebeharra badugu. Eskuin muturra geroz eta gehiago delako diskurtsoa berdetik eta berdearentzat bideratzen ari.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Klima larrialdia saihetsezina bihurtzen ari zaigun honetan eta krisi sozioekonomikoaren erdian geroz eta gehiagok itxaropena –edo hobeki erran, desesperazioa– eskuin muturrean kokatzen duten honetan, ezinbestekoa zaigu ekofaxismoari hurbilagotik begiratzea. Ingurumenaren babesaren izenean eta krisi klimatikotik ateratzeko helburuz, faxismoak dakartzan ideia autoritario, nazionalista eta xenofobo multzoa eta sentsibilitate ekologista batzean datza ekofaxismoa.

Antoine Dubiau zientzia sozialetan dabilen ikerlariak *Écofascismes* [ekofaxismoak] liburua atera berri du eta dioenez, ideologia bat da, oraingoz mugimendu gisa estrukturatua ez dena.

Baina kasu, krisi ekologikoa gogortu arau, badago egituratzeko arriskua – eta hobe okerrean irudikatu, gehiegi garatua ez deno bidea mozteko beharra betetzeko gisan–. Badaude pentsaera faxista oinarri, komunitateetan antolatutik eta jendartetik kanpo bizi diren bakar batzuk, baina orokorrean eta oraingoz, eskuin muturrean kokatzen direnak kontsumo jendartearen logikan dabilta. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi 2019an Zeelanda Berriko Christchurch hiriko meskitan gertatu hilketa, hiltzailak bere burua ekofaxistatzat definitu zuelako. Ondokoa irakurri zitekeen aurretik publiko egindako irakurketan: “Klima larrialdia eta immigrazioa arazo beraren bi aldeak dira”. Urte berean



AEBetako Texaseko El Paso hirian burutu hilketakoak ere azalpen ekofaxista zabaldu zuen.

Ekofaxismoari bi adar ikusten dizkio Dubiauk: “Ekologiaren faxistatzea” eta “faxismoaren ekologizatzea”. “Kontzeptu ekologista batzuen anbiguotasunaren ondorioa dugu ekologiaren faxistatzea, eskuin muturra ekologiarekin juntatzeko aukera elikatzen dutelako interpretazio batzuek. Ikuspegi ideologikoan, eskuin muturrak ekologia-arazoa bereganatzean datza faxismoaren ekologiazioa”. Zehazten duenari segi, faxismoaren ekologiazioa ideologia xenofobo autoritario horren baitako adar bat da, eta antifaxismotik borrokatu daiteke. “Gelditzen diren lur bi-

NATURA SALBATZEKO

ekofaxismoak naturaren mistizismoa eta populismo etnozentrikoa juntatzen dituela oharatzen dute ideologia hori aztertzen dabiltzanek.



zigarri bakanak lortzea eta babestea da ekofaxismoaren zeregina, baita lurralde pairaezinetatik ihesi datozen etorkinen aurka borrokatzea ere”, dio Jérôme Jadin politologo eta irakasleak. Irakurketa bera egiten du Dominique Bourg filosofoak ere: “Badu hamarkadak gainbehera fantasmitzen dabiltzala. Iruditegia berretsi besterik ez die egiten klima aldaketak. Apokalipsian duten sinesmena elikatzen die, inbasioaren eta [arraza zuriaren] desagerzearen beldurra puztuz”.

Ekologiaren faxistatzea oztopatzeko bidean, nozio eta ideia batzuen azalpena ezinbestekotzat dauka Dubiauk. Demagun desazkundearena –jakinda sistema kapitalistak irauteko hazkundea

**Ezkerraren eta
ekologiaren arteko
lotura gezurtatzea eta
ezkerrak arlo horretan
daukan hegemonia
suntsitzea dute
helburuen artean**

ezinbestekoa duela, logika honi buelta eman eta kontsumoa eta ekoizpenak ttipitzeko ikuspegia– edota kolapsologiarena –irakurketa honek dio zibilizazio industrialaren bukaera saihetsezina daukagula eta hondamendia badatorrela–. Bi nozio horietan oinarritzen diren irakurketa faxistak biderkatuz doaz azken urteetan: “Badira, ekologista ‘tradizionaletan’ erakargarritasun naturalak tokian tokiko antolaketa-entzatzat eta desazkundea-entzatzat, eta horiei lotuak izan daitezke mundu ikuskera batzuk ezkertiarrentzat irudika ezinak direnak”, Dubiauren hitzetan. Hots, ekologia instrumentalizatzen ari da eskuin muturra, diskurtso xenofoboa osatzeko. Nola? “Ekosistemaren

baitan nazioaren ekosistema da babes-
tu beharreko lehena”, *Fascisme fossile*
 (“fossil-faxismoa” liburuaren aurkezpen
batean irakurri daitekeenari segi. Sur-
vivalismoaren jarraitzaile anitzek dute
ikuspegi ekofaxista.

Funtsean, krisi sozioekonomikoaren
testuinguruan eskuin muturrak ezke-
rrari hartu dezakeen irakurketa politi-
koarekin gauza bera gertatzen ari da.
Frantziako presidentzialetarako hau-
teskundeetan Marine Le Penek Jean-
Luc Melenchon hitzak hartu eta boz-
katzaileak bereganatu nahi izana dugu
azken adibiderik argiena.

IDEIA ZAHARRAK, TESTUINGURU BERRIAN

Reporterre-n Du XIXe siècle à Zemmour, l'écofascisme contamine le débat politique [“XIX. mendetik Zemmour-eraino, ekofaxismoak eztabaida politikoa kutsatzen du”] artikulua interesgarria da klima larrialdia ongari ukanen duen ekofaxismoaren jatorriak ulertzeko.

Hasteko, ez da azken urteetako korronte bat eta XIX. mendean dauzka sustraiak; Thomas Malthus ekonomistaren gogoetan, besteak beste –jaiotzen kontrola gomendatzen zuen, batez ere langileen artean, baita behardunen-
tzako laguntzen bukaera ere, “espezie humanoaren desagertze goiztiarra saihesteko”. Volkisch mugimenduan ere kokatzen dira ekofaxismoaren sustraiak, Paul Guillibert historialariak azaltzen duenez. Ingurumena eta nazionalismo xenofoboa uztartzen zituen Alemaniako mugimendua izan zen, nazismoak ere sustrai batzuk bertan dauzkala. “1815etik aurrera basoen eta lurzoruen epe laburreko ustiatzearen kontra zeuden, eta, aldi berean, teuton herriaren arraza-garbitasuna lauda-

“Faxismoaren sustraiak sakonki errotzen dira XIX. mendeko pentsamendu ekologistan”

Paul Guillibert

tzen zuten, haien ustez juduek eta eslavoe-
k inbaditurikoa zena. Lurraren maitasuna antisemitismoarekin lotzen zen eta naturaren mistizismoa populismo etnozentrikoarekin”, irakurri daiteke artikuluan. “Ekologia” terminoa proposatu zuen Ernst Haeckel zientzialaria ere egon zen Volkisch mugimenduan. Garaian jada, industrializazioari, sistema kapitalistari eta urbanizazioari egindako kritikak barnebiltzen zituen ikuspegi ekofaxistak, nabarmena zelako logika horiek zekarten naturaren kaltetzea. “Faxismoaren sustraiak sakonki errotzen dira XIX. mendeko pentsamendu ekologistan”, Guillibertek dioenez. Nazismoaren baitan ere garatu zen “adar berdea”, hainbat aldaketa ekologista ekarriko zituena. Ekologia sustraitzearen ideiarekin lotuta zegoen historikoki, *Blut und Boden* (“odola eta lurzorua”) kontsignaren alde egiten zuten, “muga naturalek mugatutako lurralde batean arraza-komunitate homogeen bat definitzea helburu zuena”.

Nazismoaren bukaerak ez zuen pentsaera ekofaxista horren bukaera ekarri, eta denboran aitzinatu arau, garatzen segitu du. Ezkerraren eta ekologiaren arteko lotura gezurtatzea eta ezkerrek arlo horretan daukan hegemonia suntsitzea dute helburuen artean. Tartean dugu adibidez, 1995ean Henry Coston naziak argitaraturiko *Non! L'écologie n'est pas de gauche* (“Ez! Ekologia ez da ezkerrekoa”) idatzia. Ingurumenaren aldeko borroka eramaten duten eskuin muturreko kideen zerrenda luze bezain beldurgarria topatu daiteke *Reporterre-n* artikuluan.

“Ideologikoki gauzak argitzeko lan handia daukate ekologistek, eskuin muturreko talde batzuen partetik haien borroken berreskurapena saihestu nahi badute –dio Dubiauk *Perspectives printanières* blogean–, oso serio hartu beharreko mehatxua da. Gaur egun ekologiak, naturaz edo demografiak hitz egiteko daukagun modua ikuspegi faxistarekin uztartu dezakete. Harra-paketa-saiakera oro saihestu beharra daukagu”.

Ezkerra ez badabil plazan aterabide proposatzaile, jakina da krisi sozioekonomikoen garaian eskuin muturra indartzen dela. Krisi klimatikoa hasi besterik ez da egin, eta oraingoz ez-tia eta bizigarria dugu. Astia duguno egin beharreko ariketa da Dubiauk gomendaturikoa: ekologismoa ezkerretik eraikitzen dela argi utzi. Bortiztuz joanen den krisi horretan ezkerretik eraiki beharko dira ideiak eta aterabideak. Eskuin muturra hor izanzen delako klimak eta sistemak kaltetuak xarmatze-ko jukutrian tinko. Eta krisia ez delako berdin biziko, eskuin muturraren giroan edo ezkerrek oinarri duen justizia sozialaren izpirituan. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com



HONDARTZA



GUZTIONA



GOZATZEKO PLAZERRA, DA



ZAINTZEKO



BETEBEHARRA



Belen Ausejo

UR BIZIAREN ZALEA



PRESA HANDIAK ETA URTEGI ERRALDOIAK NEKAZARITZARAKO EZINBESTEKOAK DIRELA HIDROMITO BAT DA



Murillotik Aragoi ibaia pasatzen da eta bere uretan murgiltzea maite izan du beti. *Amuarraina* deitzen zioten txikitan herrian. Ura eta naturarekiko pasioak bultzatuta, hainbat kolektibotan parte hartu du. Orain Urbizirekin ari da lanean eta beste hamahiru talde ekologistarekin Caparrosoko behi makroetxaldearen inguruko eragin handiko informazio kanpaina jarri dute abian.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Caparrosoko makroetxaldeko nagusiek martxoaren bukaeran hamalau kolektibo ekologista deitu zituzten adiskidetze-ekitaldi batera, haien artean Urbizi. Nola dago afera? Haiek diotenez, iraingarriak eta kalumniazkoak diren adierazpenak egiteagatik hamalau kolektibo deitu gintuzten epaitegira eta, jakina, ez genuen halakorik onartu. Foru-zaingoak, baso zaindarien, Ebroko Konfederazioak eta hainbat entitatek egindako txostenak bildu genituen, besterik ez, eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztu genituen. Beren irudiari eta negozioari kalte egiten geniela argudiatuta, enpresa haserretu egin zen eta horregatik deitu gaituzte, guk bar-

kamena eskatzeko. Orain urtebeteko epea du Valle de Odieta enpresak gure kontrako kereila kriminal bat jartzeko eta agian egingen dute. Gure artean inork ez du atzera egingo, baina batzuen neke puntua ere sumatzen da. Gure kontrako kereila jartzan badute auskalo zer gerta daitekeen. Agian ondare pertsonalarekin erantzun beharko dugu, baina Europara behin eta berriz jotzeko erabakia hartuta dugu. Europan inon ez daude baimenduak halako makroetxaldeak, Espainiako Estatuan izan ezik. Zalaparta sortu behar da, honen atzetik beste proiektu asko datozelako, besteak beste Noviercasen (Soria, Espainia) egin nahi duten 23.000 behiko etxaldea.

Abeltzaintza eredu horrekin ezin da ezer duin eta onik egin eta gainera *greenwashing* kanpaina izugarriak egiten dituzte bio-esnea, bio-ongarria ekoizten dutela esanez, ekonomia zirkularra, zero km... kontzeptu horiek maltzurki erabiliz, gezurrak baino ez dituzte esaten.

Soriako proiektu hori aurrera doa?

Dueroko Konfederazioak trabak jarri zizkion, baina gerora amore eman zuen eta orain argi berdea du. Elikadura ez osasuntsua sustatzen ari gara mundu osoan. Hainbeste animalia elkarrekin izatea horren espazio mugatuan arrisku-tsua da, ankerra izateaz gain. Izurriteak gerta daitezke edozein unetan baldin-



Belen Ausejo Garriz

MURILLO EL FRUTO, ARAGOI, 1962



Informazio Zientzietan lizentziaduna da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta ingurumen aktibista. *Ibai kudeaketa iraunkorra eta uraren kudeaketa integratua* masterra egina du Zaragozako Unibertsitatean. Fundación Nueva Cultura del Agua-Urbizi taldeko kidea da. Urtean Iruñerriko Mankomunitatean lan egin du hezitzaile moduan eta gaur egun Euskara Teknikaria da Urrotz, Lizoainibar-Arriasgoiti, Izagaondoa, Longida, Urraulbeiti eta Elon. Tafallan 2019an gertatutako uholdeak zirela-eta argitaratuko *Hasta aquí llegó la penúltima riada. Las enseñanzas de Zidacos* (Altaffaylla, 2019) [Honaino iritsi zen azken-aurreko uholdea. Zidacos-eko irakaspenak] liburu kolektiboan parte hartu zuen.

tzak ez direlako osasungarriak eta eri baleude bezala bizi dira, antibiotikoak eta beste medikamentuak janariarekin batera harturik.

Txinan, txerri-izurrite bat izan zuten 2018ko amaieran eta animalien erdia hil egin behar izan zuten. Merkatu hori hornitzeko European hamaika etxalde berri zabaldu zen, baina Txinan makroetxaldeak oso azkar ari dira eraikitzen, batzuk hamabi pisutako etxalde erraldoiak, eta, ondorioz, Europako ustiategi berri horien etorkizuna oso ezbaian dago.

Hemendik aurrera legeak animalien gehieneko kopuruak ezartzea adostu dute Nafarroan.

Aski da hori?

Ez. 1.250 animalia oraindik gehiegi da eta, gainera, iragarpen horrekin zera gertatzen ari da, proiektu batzuk korrika eta presaka aurkezten ari direla baimena lortzeko, legea onartu eta indarrean sartu baino lehen.

Nafarroan bagenuen aukera gure autonomia eta elikadura subiranotasuna indartzeko eta gerta daitekeen edozein krisialdiren aurrean sendoago eusteko, baina gobernuan ez dute inolako asmorik egungo garapen ereduari trabak jartzeko. Ingurumen Departamentuan Geroa Baiko kontseilaria dugu eta sozial-berdeak direla diote harro, baina nik ez dakit eskuina bera ere ausartuko ote zen egitera hauek lasaitasun osoz egiten ari direna.

Energia berriztagarrien inguruan, adibidez, eguzki plakaz eta haize errota ari dira betetzen lur sailak eta mendiak. 50 proiektu baino gehiago daude Nafarroa osoan. Kontsumo propiorako, aldiz, etxean jarri nahi badituzu azpiegiturak, oztopo eta burokrazia piloa aurkitzen duzu. Ergeltzat hartzen gaituzte.

Oro har, gobernuak itxurak egiten dituzte guri sinetsarazteko ingurumenaren alde lanean ari direla, baina erabaki garrantzitsurik ez dute hartzen. Beste adibide bat: plastikozko lastotxoak merkatutik kendu behar zituztela iragartzeko kanpaina handiak egin zituzten. Halako kontu txiki batean dirutza eta denbora gastatu zuten eta gaur egun lastotxoak non-nahi ikusten jarraitzen dugu eta, oro har, plastikoa erabilera izugarri handitu da.

Zer egin liteke plastikoen erabilera murrizteko?

Jendea eta dendak behartu, toki itxietan eta esparru askotan erretzea debekatu zuten bezala, adibidez. Ontzien lege on bat ezinbestekoa da, debekuak eta arauak goitik jarriak; hiritarrek ezin ditugu gauzak ongi egin ia janari guztia plastikoaan bilduta erostera behartuak bagaude. Zaborren kudeaketa erokeria da. Sinetsarazi digute plastikoa erabiltzea higienikoagoa dela. Pandemiarekin argi ikusi dugu hori. Bestalde, badago beste arazo bat: gizartearen mobilizazio eskasa. Gazteek ere ez dute ezer sinesten. Duela 20-25 urte bazen ingurumenarekiko grina, baina aspertu dira eta orain ez dira sartzen afera hauetan.

Nola eragiten dio Caparrosoko etxaldeak inguruko lurraren kalitateari?

Eragina itzela da. Han nahasten dituzte ia 7.000 behiren gorotz eta pixak, medikamentuz eta fitosanitarioz beteak, Iruñerriko zabor organikoa eta estatuko hainbat tokitatik ekarritako 49 tipologiako hondakin organikoekin, haien artean araztegien lohiak eta hiltegiatiko hondarrak. Digestoreetan dena nahasi eta biometanizazio prozesu baten ondoren, gasa eta materia solidoa lortzen dute. Metanoa haien makinaren funtzionamendurako baliatzen omen dute eta hondakin solidoak lur sailetan ongarrigisa erabiltzen dituzte, baina ez da ongarrria, hortik ateratako ezer ezin delako ona izan. Horrek lurrari ez dio mesederik egiten. Landarea hazteko agian balio du baina lurra pobretzen du epe luzera. Lur nahiko hilak ditugu eta ongarrri horiekin ez ditugu aberasten. Argi dago Valle de Odieta enpresakoek nahi dutena egiten dutela. Isunak jarri izan dizkiete lur sail komunaletan kontrol eta baimenik gabe digestato horiek botatzeagatik, baina berdin zaie, isunak ordaintzeko dirua badute. Laguntza eta subentzizio aunitz jasotzen dituzte.

Iruñerrian urteak eta urteak daramatzagu pentsatzen gauzak oso ongi egiten direla, baina ez da horrela, bereziki hondakinen kudeaketari dagokionez. Adibiderik argiena hondakin organikoena da. Caparrosora bidali beharrean, inguruko lur sail guztiak ongarrizteko primerako simaurra atera liteke Iruñerrian sei edo zazpi konpostatze gune jarrita.



Eta urari nola eragiten dio Caparrosokoak?

Handik ateratzen den ur zikinak lur-azpiko urak kutsatzen ari dira, Greenpeace ederki ongi erakutsi zuen bezala, baina hori ez dute onartu nahi. Salaketan aurrean, kutsadura zehaztugabea dela dio foru gobernuak. Nitrato maila handia ageri da akuiferoetan, baina ez dute ikusi nahi. Ez dute lotu nahi Caparrosoko behitegiarekin, baina hori jarri zutenetik kopurua handitu da modu nabarian eta arazoak begi bistakoak dira: Villafranca herrian edaten zuten urak ez du betetzen, jada, gutxieneko kalitate.

Pedro Arrojo iker-tzaileak dio hau dena giza eskubideen aurkako eraso dela. Villafrancan ezin dute bertako ura edan eta gobernuak ematen dien soluziobide bakarra da Nafarroako ubidetik hartzea, askoz garestiagoa izan arren.

Arazoa ez da soilik ura kanpotik ekarri behar izateak dakarren gastua, baizik eta zaurgarritasuna ere sortzen duela. Ubidean ezer gertatzekotan aho-urik gabe geldituko lirarteke. Oso larria da egiten ari direna. Lur azpiko uraren kalitatea berreskuratzea oso zaila da, azaleko urari baino askoz gehiago kostatzen zaiolako.

Ibaiez mintzatzean, Javier Martínez

Gil Zaragozako Unibertsitateko hidrogeologoak dio ibaiak luraren zainak bezalakoak direla, eta horien egoera onari eustea ezinbestekoa dela. Berak 'fluvio-felicidad' edo erreka-poza kontzeptua erabiltzen du adierazteko gure osasuna, zorientasuna, lasaitasuna, bizipoza, harreman gozoak... ibaiekin lotuta daudela. Honekin batera 'hidromitoez' ere hitz egiten du, hau da, uraren inguruan dauden ideia okerrak: itsasora ailegatzen den ura galdu egiten dela, urtegi gehiago behar direla, ibaiak dragatu...

“Ibaiak oparitzen zaizkie elektrizitate enpresa boteretsuei, eraikuntza eta porlan enpresa handiei, nekazaritza industrialari, eta turismo proiektu erraldoiei”

Hidromito bat da, adibidez, Erriberan ur gutxi dagoela eta horregatik Nafarroako iparraldetik eraman egin behar dela?

Bai. Edota urtegi erraldoiak ezinbestekoak direla nekazaritzarako.

Nafarroako erdialdean eta Erriberan ur gutxi dagoela esatea tontakeria da ibai handienak hortik pasatzen direlako: Ebro, Aragoi, Ega, Arga, Zidakos, Alhama...

Lehortek eta uholdeak ohikoak dira eta horiek kudeatzen ikasi behar da. Alabaina, ureztatzaileei eta zentral hidroelektrikoei nahi adina ur ateratzeko eskubidea eman zaie eta gehiegizko erauzketa egiten bada ur sarrera urriak direnean, normala da ur eskasia egotea. Ibaiak haien egoera naturalean ahal bezainbes-

te mantentzea da urrezko arrautzen oiloa bizirik edukitzea.

Nafarroan, uraren inguruko gatazkak aspalditik datoz. Urbizi plataformaren borroka guztietan azpimarratzen dugu bestelako gobernantza behar dugula, parte hartzailea, gardena eta bidezkoa. Paradigma aldaketa behar da: ura, ekonomiarako errekurtsua baino, denon ondarea dela ulertzea eta hortaz, bidezko kudeaketa exijitu eta bultzatu behar da.

Nekazaritza asko aldatzen ari da Nafarroan?

Bai. Azken 50 urte hauetan gertatu denari erreparatzen badiogu, zabaldu den nekazaritza eredia guztiz eztabaidagarria da. 1985ean Nafarroan baziren laborantza ureztatuko 65.000 hektarea, eta familia asko hortaz bizi zen. Egun, bikoiztu dira eta gora doaz, nahiz eta nekazari kopurua nabari gutxitu. Nafarroako ubidearen proiektuak aurrera segitzen du, negozio txarra izan arren, denok urte luzez ordaindu beharko dugulako.

Ezin da ukatu XX. mendearen ureztatze-ko eremuak zabaltzerakoan nekazaritzari eman zioten bultzada, baina argi dago, praktikan, interes pribatuei oparitu egin dizkiegula ibaiak. Gaur egun nekazaritza esku gutxitan dago. Askok haien lurak ustiapen handien esku utzi behar izan dituzte oso sail txikiak zituztelako eta orain, ureztatze sisteman diren laguntza eta eskubide guztiekin sartzeko, gutxienez bost hektareatako azalera behar dute. Baldintza horiekin ezinezkoa da

gazte askorentzat nekazaritzan sartzea edota familiako lurrekin jarraitzea. Izugarrizko arrakala gertatu da.

Ustiapen handi haietan, kasu askotan, arduradun bakar batek kudeatzen ditu hamaika jabe txikiren lur sailak. Oso plan teknifikatuak, izugarrizko makinaria, lanpostu gutxi eta prekarioak, eta produktu fitosanitario pozoitsu ugari erabiltzen dituzte. Produkzio eta etekin handiena ateratzea da helburua, baina gauzak ez dira errazak: erregaien prezioak, ongariak... Sail hauetan ekoizten den gehiena animalien elikadurarako laboreak dira: garia, artoa, garagarra... Ez gizakiok




aholkukoop
Fiskala Kontablea Laborala

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus



mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

behar dugun elikadura osasuntsurako, ekologikoa alegia.

Berriki sartu diren nekazari eskasak gehienbat ekoizpen ekologikoan ari dira, hor askoz neurri humanoagoak daudelako, baina haiek, adibidez, gehienetan ez dute Nafarroako Ubideko ura hartzeko aukerarik.

Zertan da Nafarroako ubidea?

Orain bigarren faseari ekingo diote, Itoizko urak Erriberaraino eramateko. Proiektuaren arabera, ubide irekia izan beharrea, bi tutu handik garraiatuko dute ura. Fase hori justifikatzeko diote ur hornidurarako Erriberako hainbat herri-tan beharrezkoa dela, eta egia da, baina esaten ez dutena da ura hartzeko erabiltzen ziren putzuak eta iturriak kutsatzen eta lehenagoko azpiegiturak hondatzen utzi dituztela arduragabekeriak, ubidea ailegatuko zelakoan.

Ibaiek garbitu behar dira uholdeen kalteak txikitzeko?

Jendeak kontrakoa sinetsi arren, errekek garbitzea ez da mesedegarria uholdeak gertatzen direnean. Urak landareen eta zuhaixken oztoporik ez badu, izugarrizko abiada hartzen du. Ibaiari zabaltzeko aukera ematen badiogu, lur sail batzuk hartuko ditu azpian eta indarra hor galduko du, gero bere bidera aske itzultzeko.

Tafallan 2019ko uztailean Zidakos ibaian gertatu zenak argi utzi zuen arazoa

ez dela ibaiak ez garbitzea, ibaiertzean egiten dugun okupazioan eta oro har lurralde antolamenduan baizik. Zidakos artoa oso zabala da eta ur asko erori zen oso denbora gutxian. Aspalditik euririk egin gabe, azaleko buztina geruza iragazgaitz bihurtu zen eta gainera inoiz baino hesi zurrun gehiago topatu zuen urak. Garai batean baratzeen artean zeuden seto edo landare hesiak, orain porlanezko murrak dira; etxolatxoak zirenak orain etxe puskak dira; lehen lurra zegoen tokietan orain baldosa eta porlanezko zoruak daude, ura xurgatzen uzten ez dutenak... Domino efektua gertatu zen. Orbaibarretik ura indar handiz etorri zen, gero eta abiada handiagoa hartuz. Dena herrestan eramaten zuen, baita traktore handiak ere, eta metraila bezala jaurtitzen zituen materialak.

Jendea berehala hasi zen kezuka Ebroko Ur Konfederazioak ibaiak garbi ditzala eskatuz, baina kontrakoa egin behar da: utzi ibai bere baitan antolatzen. Konfederazioan garbiketara mota hori, dragatzea hain zuzen, ez dela ona jakin arren, kasu egiten diete; gainera, ibilguan ziren oztopoak eraitsi beharrea, berriro erakitzeari ekin zioten buru-belarri. Urbizi eta beste kolektibo askoren iritzi, zaborra kendu behar dugu ibaiertzetik, baina, horrez aparte, baita eraikinak eta azpiegiturak ere, ahalik eta gehien, bestela, hurrengo uholdeetan berdin gertatuko zaigu eta. ●



Latinoamerikako eta Kolonbiako partida

Nazioartean bizi dugun krisia azkartzen ari den bitartean, potentzia nagusiek ahaleginak egiten dituzte beraien aliatuak eta basailuak motzean lotzeko, bloke kohesioa lortu asmoz. Lan honetan AEBek arazo asko daukate, adierazle esanguratsua da Washingtonek Ukrainaren inbasio errusiarraren harira Moskuren aurka abiatutako gerra ekonomikoarekin gertatzen ari dena. Errusiarren aurkako zigorrak eta jazarpen paketea batez ere Mendebaldeak jarri du martxan, ez al-diz Hegoalde globalak.

Latinoamerikan Kolonbiak soilik onartu ditu Washingtonek Moskuren aurka hartu dituen neurriak, baina gainerako kontinenteko herrialdeek bezala, ez ditu inplementatu. Errealitate hori aldatu nahi dute AEBk Los Angelesen burutuko duen Ameriketako IX. Goi Bileran. Halere, antolakuntzak berak buruko min handiak eragin dizkio. Kubaren, Nikaraguaren eta Venezuelaren bazterketak Andrés Manuel López Obrador (AMLO) Mexikoko presidentearen erantzuna eragin zuen, aurreratuz ez zela Los Angelesera bertaratuko herrialde amerikar guztiak ez zeudelako gonbidatuak. Hortik aurrera, arrazoi antzekoengatik edo beste batzuegatik herrialde askoren zentzu bereko adierazpenak iritsi ziren: besteak beste, Bolivia, Guatemala eta Brasilgo presidentek eta Karibeko komunitateko hamabost herrialdeak. Beste batzuk, boikotarekin bat egin ez, baina Washingtonek harturiko eraba-

AEBentzat ez dira garai onak Latinoamerikan. Pazifikoko estatuak, Washingtonek beti kontrolatuagoak izan dituenak, emantzipatzen hasi dira

kia kritikatu zuten. Azkenik, AEBek prezio diplomatiko handia egin behar izan dute, adibidez, Jair Bolsonaro bezalako agintariak goi-bilerara joan zitezten.

AEBentzat ez dira garai onak Latinoamerikan. Pazifikoko estatuak, Washingtonek beti kontrolatuagoak izan dituenak, emantzipatzen hasi dira etorkizun demokratikoagoa eta justuagoa eraikitzeko bidean. Lehenbizi AMLOren garai-pena iritsi zen Mexikon, ondoren Pedro Castillok irabazi zuen Perun, eta azkenik Gabriel Boric-ek lehendakaritza lortu zuen Txilen. Baina olatua ez da amaitu oraindik, Kolonbiako partida jolasteke dago. Bigarren itzuliko hauteskundeen emaitzak auresatea ez da erraza, gogora dezagun 2021ean Ekuadorko hauteskundeetan Andrés Arauz hautagai *correista*-k Guillermo Lasso enpresari kontserbadorearen aurka galdu zuela




ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

inork gutxik espero zuenean. Hedabideak eta oligarkak oso boteretsuak dira, ia Osaba Sam bezainbeste.

Gustavo Adolfo Petro-ren lehendakaritzarako hauteskundeetako balizko garaipenaren aurrean, Joe Biden sartu zen hauteskunde-kanpainan, NATOk kide ez diren herrialdeen artean Kolonbia ofizialki izendatuz AEBko Aliatu Nagusi bezala. Igandean Petrok eta Francia Márquez-ek (presidenteorde izateko hautagaiak) hauteskundeak irabazten badituzte, Kolonbiak egin duen ibilbide historikoagatik AEBekiko dependentsia asko kudeatu beharko dituzte. Gauza bera gertatzen zaie Borici Txilen edo Castillori Perun. Horrez gain, hiru herrialdeak planetako desorekatuenetakoa dira, eta horregatik dute oligarkia ekonomiko oso indartsua; ondorioz eskuinak, hauteskundeak galdu arren, erabaki politikoak eta herrialdeen bilakaera baldintzatzeko gaitasun erabakigarria jarraitzen du izaten. Edonola ere, hauteskunde borrokak merezi du, Kolonbian ezkerrean garaipena benetako bakea ekartzeko eta jendarte justuago bat eraikitzeko aukera izateko baldintza da. Dena egiteko dagoen tokian, kalitatezko eskola publikoak eta osasun unibertsala beharrezko jomugak dira Kolonbia aurrerakoi eta gero eta burujabeagoa eraikitzeko. Ez da erraza izango, nahiz eta hautagaitza aurrerakoiak hauteskundeak irabazi, baina, hain zuzen ere, pertsona xume eta ahulenengatik, saiatzeak merezi du. ●

Zeru bete bele beltz



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA

Urtero bezala, heldu da ekaina, ikasturtearen hondarra, ikasleen uzteko unea, eta urtero dut gogoaz azpimarratzeko zerbait baikorra, zapore ona duena. Eta izan nuen garaia, hainbat urtez, idatzi bainituen hemen sorta ederrak, euskalgintzaren lanaz, ikasleen lorpenez, gauzatzen diren mirakulu txiki bezain funtsezko horiei buruz.

Aitortzen dut zenbaitzuetan, alabaina, bilatu ditudala elementu horiek, xerkatu eta bortxatu argumentua, batzuetan enfasia kotsia eman, ikasle bat euskaldundu izana zoriontzeko hitzik arraroena aurkitu, lorpen profesionalaren edertzeko adjektiboa hautatu, destinoa dugula azpimarratzeko metafora aproposa landu. Hezigaitz bezain suntsiezin baikinan, kontrako guziari ostiko eta besagainka. Gutxitan gezurtxoak kondatu ditut, euskarak distira dezan pixka bat gehiago.

Aurten, euskararen kale erabileraren neurketaren datuak publikatu ziren, lotsagarri, eta hortik bi egunetara ikasleek galdegin zidaten, kalipu handiz, noiz eta non egin euskaraz, non ditudan planak, nola egin hizkuntzaren ez galtzeko, zein den haien zentzua. Eta nik hitz apropos gutxi baizik ez, ez dut deus asmatu.

Edo bai, "atzeman lan edo bikote euskalduna": penagarria txantxetan. Batzuetan nago ea erran behar zaienez egia, hemen ez dela euskaraz egiten, ez dela hizkuntz politikarik, ez engaiamendurik, ez inbertsiorik, ez lortu-beharrekorik, ez zigorrik bete ezean, borondate gutxiegi baizik, diskurtso anitz. Ez gaudela horretan. Hemen erdararen politikak segitzen duela aitzina, jende gero eta gehiagoren zeregin eta ogibide izanik ere. Gehiago dena, bakarrenek, beti berdinek, txirotasunean eramaten dugula. Burutik pasa eta isildu nintzen, diskurtso baikorrak behar direla baitakit, bestela peko erre-kara doala afera eta, ezinean, isiltzea dela hobe.

Banengoen: eta horren ondotik zer? Horren ondotik eta beste guziaz gain, noski, aipatzekoak ez baitira eskas. Bada mendea erabilerak behera egiten duela. Badira bederen 25 urte baxoa eta brebeta euskaraz ezin direla pasa. Mende erdia euskararen ezagupen instituzionala ukatzen dela. Hogeitaz inguru euskara zerbitzu publikoetan garatuko dela hitzemandu dela eta jada bost urte Elkargoaren proiektuetan idatziz jarria izan zela, bihamunen zain. Badira hamazazpi urte hizkuntz politika publikoa badela. Zortzi hamarkada kontzien-

tziatze eta kanpaina. Badira hamabost urte eskatzen dela hizkuntza-eskakizun sistema martxan ematea lan munduan. Badira 25 urte lanean ari naizela eta ene saria doi-doi 500 euroz igo dela. Badira hamar urte, tai gabe, ari garela erratan belaunaldi gazteek, bai, haiek badakitela eta eginen dutela: ama ikastolatik landa denak erdaraz ariko direla dakigularik. Eta beste. Urte horien guzieren iraupenak lerrokatzen balira, bata bestearen ondoan, baliteke mila bat argi-urteko distantzia estaltzekoa. Zeru bete bele beltz. Zergatik kontrarioa kondatu? Indarrak eta ekimenak, neurriak eta lanak, asmoak eta diruak, ondorio hain gutxiengatik, funtsezko baliabide eta erabakiak ez baitira sekulan helden.

Hori idaztekoan nintzela, miserableki, horra non semeak eskolako zakutik atera zidan gutun azal txiki zuria, ene izena zeramana letra larri eta hotzez eta xingolaz troxaturik hetsia. Lehen bezala eskuz esku helarazia, sekretuan. Ekin-tzarako deia aipatzen zen, haien azterketen euskaraz pasatzeari begira. Bazenekite nola senditu nintzen orduan! Berpiztu nintzen. Erresumindu eta diaboliko, gauzez eta leku sekretuetara joateko prest senditu nintzen, ene baitako garrak oro hauspoturik. Aire! ●

Eskubideen arteko talkan, indarrak erabakiko du



ANDREA BARTOLO
AZET ETXEBIZITZA
SINDIKATUKO KIDEA

Etxebizitzaren merkantilizazioa ukatu ezin dugun errealitatea da. Eta horren atzean hainbat ebidentzia tragi-ko daude: etxegabeteak, etxebizitza duina eskuratzeko ezintasuna, espekulazioa, alokairuagatik itota bizitzea... Finean, jabetza-pribatuaren logikaren inposizio basatia. Honen aurrean “etxebizitza eskubidea” aldarrikatzen dugu maiz. Baina ez al dute jabedunek etxebizitzarekin negozioa egiteko eskubiderik?

Terminologikoa ez ezik, ondorio politikoak dituen gaia da. Etxebizitzari dagokionean eskubide vs negozio dikotomia mistifikazio hutsa da. Etxebizitza, aldi berean, eskubidea (erabilera-balioa) eta negozioa (truke-balioa) delako. Horrek esan nahi du ezin dugula eskubide bat aldarrikatu ezaugarri naturala balitz bezala, etika edo moral abstraktu baten izenean. Eskubidea harreman soziala delako, indar-harremana eta antagonismoa.

David Harvey-k *eskubide kontzeptuaren* anibalentzia ikertu zuen, horren erabilera eta aldarrikapena kontraesankorra dela esanez: “Hirirako-eskubidea finantzariek eta promotoreek eska dezakete, eta eskubide osoa dute horretarako; baina etxerik eta paperik gabekoek ere aldarrikatu dezakete. Eskubidearen definizioa, beraz, borrokaren xedea da,

eskubide hori gauzatzeko borrokarekin batera joan behar duena”.

Etxebizitza-eskubidearekin antzeko zerbait gertatzen da. Gizarte kapitalistan bi eskubide kontraesankor eta antagonikoen arteko talka dago: klase jabedunarena (kapitela metatzeko eskubidea) eta klase desjabetuona (etxebizitza izateko eskubidea). Eta, Marxek zioen bezala, “eskubide berdinen artean, indarrak erabakitzen du”.

Hau da, ezin dugu eskubideen auzia plano moralean soilik planteatu. Klase-antolaketaren eta indar-metaketen planora ekarri behar dugu. Klase jabeduna etxebizitza-eskubidea negozio bezala gauzatzeko antolatuta dago, merkantziaren-erregimena erreproduzitzen eta jabetza pribatuaren diktadura ezarritik. Desjabetuon etxebizitza-eskubidea, beraz, ez da erakundeen eskutik iritsiko, ezta erreforma burgesen bidez ere. Etxebizitza-eskubidea antolakuntza eta borrokaketa garatzeko dugu gaitasunagatik baino ez dugu lortuko.

Ez dago bateragarritasun posiblearik eskubide kontrajarrien artean. Hortaz, klase-borroka izango da etxebizitzaren eskubidearen bi kontzepzioen artean zein gailenduko den erabakiko duen gudu-zelaia. ●

Zakurraren ipurtzuloan



EDU ZELAIETA ANTA
IDAZLEA ETA
IRAKASLEA

Irene Vallejo-k *Infinitua ihi batean* liburu-ko pasarte batean azaltzen du greziarrak ez zeudela batere interesatuak espezializazioan: kultura orokorra lanean eta agertzean zetzan estatusa. Medikuntzak bakarrik erdietsi omen zuen prestakuntza espezializatu errespetatua izatea. Gainerako ofizioak, eguneroko bizimoduan beharrezkoak izanagatik ere, ez ziren dotoreziaren seinale, eta urrutixko zeuden orduko izarra zen filosofiatik.

Egileak jarraitzen du, esklabotza naturalizatua zuen gizarte haren nostalgiarik gabe, maistraki: medikurik eza-gunenek nabarmentzen zuten haiek ere

filosofoak zirela. Horretarako beharra zuten, nonbait ere, (gizonezko) sendagilearen etiketa aski ez izaki.

Tokitan dago filosofoen apologia egun. Zakurraren ipurtzuloan. Espezializazioak bizi (eta hil) gaituen honetan, irain kutsua ere hartu du zenbait giro publikotan. Go-goan dut, adibidez, nolako destaina zera-biltzen Espainiako eskuineko batzuek pandemiako Osasun Ministro Salvador Illaren kontra: “*el filósofo*” zeritzoten, burlaizez.

Nostalgia-rik gabe ari naiz ni ere. Medikuntza eta aforismoak uztartu zituen Hipokratesek gutaz zer pentsatuko lukeen asmatu nahian. ●

Airean beldurra



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA EDO

Kezkaturik, azalak hartu ezinik. Izu-antz. Azkenotan, jende anitz dabil horrela Mundu osoan, ohi gisan. Gure mundu garatuan, ohi baino gehiago.

Pandemia eta gerra dira beldur-iturri nagusiak. Apokalipsiaren lau zaldunetako bi. Hirugarrena, gosea, ekonomian irudikatutik, eta laugarrena, heriotza, inguruan beti.

Nahiz eta pandemia lausotuago ageri orain, apalagoa edo, eta gerra gureganetik hain hurbil ere ez egon, inguruko jende askori igarri diot kezka. Bat-batean zerbait izugarri eta gaindiezina iritsi behar zaigun beldurra.

Helduak garenez, ez dugu esaten, baina behin gaia aipatuta aitortzak datoz ahapeka. Eta aitortzekin batera, lasaitua ere batzuetan, adierazezina partekatzeak berekin dakarren sosegu berezi hori.

Nire burua beldurtizat izan dut beti. Inoiz ez dut jakin jatorriz edo inguruabarrek eraginda –badakit, aldiz, emakume izateak neure beldurren zerrenda handiagotu zuela–.

Halarik ere, orain, harrituta nago nire buruarekin: inguruko askok hitz-erdika adierazten dituzten beldur horiek ez naute ikarutzen.

Ikusten dut izu-ikarak hedabideek elikatzen dituztela, herritarrok joera baitugu burutik burura sinesteko ikusten eta entzuten ditugun albiste-itxura oro

Oroitzen naiz Txernobylgo istripu nuklearraz, eta gogoan dut berriek iritsi ahala sortzen zidaten antsietate menderakaitz eta aitorrezina. Eta atzerago eginik, oroitzen naiz gerraren beldurrak jo ninduen lehen aldiarekin ere: bospasei urte nituen, eta orduko

komunikabideak gerra-oihartzunak hasi ziren ekartzen Ekialde Ertainetik –geroago jakin nuen Sei Eguneko Gerra zela–. Herriko haurrok gerretara jolasten hasiak ginen, goseak geunden gerra-kontuez eta lortu genuen izeba zahar batek kontatzea haurtzaroko istorio bat Munduko Lehen Gerrari lotua: argi-bola erraldoi bat ikusi omen zuten Pirinioez beste aldean, Iparraldean. Egia edo fantasia, dardara batean paratu gintuen kontakizun hark.

Halako oroipenak gogoan, serio hartzen ditut jende askok pairatzen dituen beldur-izuak –ni orain hain izuturik sentitu gabe ere–. Eta ikusten dut izu-ikarak hedabideek elikatzen dituztela, herritarrok joera baitugu burutik burura sinesteko ikusten eta entzuten ditugun albiste-itxura oro. Askori eta askori, informazioa inongo galbaherik gabe bereganatuta, sufrimendu handia eragiten die.

Alferrikako sufrikarioa, ezer gertatzen ez den bitartean, zerbait izugarria gertatzera (botoi nuklearra dabil jende askoren buruetan) ezer leunduko ez lukeena. Galdera bat darabil: nork ateratzen dio onura jendea beldur bizi zeari? ●



Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45



ehz

uztailaren

11213

I R I S A R R I

JUANITA BANANA LEE SCRATCH POURRI DJ TXAKO
DJ REIMY MARKO ET SELECTARAK Ø R A
RAKATAPUNK GAITISTANEKO ORKESTRA
KINBONBO BRASS BAND AMORANTE
JOSEBA TAPIA LUMI KILIMAK
ATOEM IBIL BEDI BULEGO
NIKO ETXART FUSIBLE FIZT&FURIUZ
ETA HAPA HAPA AH! SEPULTURA
XUTIK KWANTOU EZ PALAK
EESAH YASUKE FRIKUN ØDEI
DELIRIUM TREMENS
SOFA GAILU VULK PASADENA
MADELYN ANN
MERINA GRISFRIGO JOSEBA IRAZOKI
CALLING MARIAN ETA LAGUNAK

Amaiur

SINBOLO BATEN BIRSORKUNTZA

1522ko uztailearen 19an Amaiurko gaztelua bereganatu zuen espainiar gudarosteak, euren erreinuaren defentsan erresistitu nahi izan zuten nafar gerlariak garaituta. Ez zen izan Nafarroako konkistaren borrokaldi funtsezkoena, bai seguruenik sinbolikoena. Historiak isilarazita egon ondoren, burujabetzaren aldeko aldarrikapen modura birsortu zaigu “azken nafarren” oihu hura, bost mende geroago.

URKO APAOLAZA AVILA

500 urte beteko dira aurtuen Amaiurren Nafarroako erreinuaren aldekoak hango gazteluan gotortu eta espainiar gudarosteari aurre egin ziotela. Berrehun inguru zirela diote orduko kronikek, gaur badakigu seguruenik ehun baino ez zirela, milaka soldaduren kontra. Bizirik geratu zirenetatik asko preso hartu zituzten eta batzuk giltzapean zeudela hil ziren, tartean Jaime Belaz Medrano kapitaina, Amaiurko gazteluaren alkaidea. Hala, Karlos V.a espainiar errege eta germaniar enperadoreak behin betiko zapaldu nahi izan zituen nafar agaramontarren independentzia nahiak.

Amaiurkoa agian ez zen izan Nafarroako konkistaren borrokaldi garrantzitsuena –urtebete lehenagoko Noaingo batailarekin konparatuta, adibidez–,

baina balio sinboliko itzela zuen, gazteluaren kokapen estrategikoagatik, eta gertaerak galtzaileen artean utzitako zauriagatik. 1841ean foruak eta erreinua guztiz galdu zirenean, Amaiurko “azken nafarren” erresistentzia gogoratu eta iruditeria oso bat eraiki zen, are gehiago duela mende bat abertzaletasunak “nafar askatasunaren alde” borrokatu zirenak omentzeko monolitoa eraiki zuenean.

Gaur egun burujabetzaren ikur bilakatu da 1522ko borrokaldi hura, ekainaren 5eko *Amaiuraldia*-n ikusi dugun lez: ehunka lagun elkartu ziren Amaiurren eta Elizondon, herriaren memorian “data hori zizelkatzeko”. Baina zer dakigu egiaz gertatutakoari buruz? Ikerketa historikoez eta arkeologiak gero eta datu gehiago ematen badizkigute ere, epikaren lurrunak oraindik jarraitzen du Amaiur estaltzen.

Nafarroa Berriz Altza ekimenak ekainaren 5ean antolatutako *Amaiuraldia*-an Amaiurko gazteluaren inguruko zelaia jendez bete ziren, gertaeraren 500. urteurrena gogoratu eta burujabetzaren aldeko borroka bizirik dagoela aldarrikatzeko.

FOKU / IDOIA ZABALETA



INPERIOEN GARAIKO PLAZA GLOBALA

Erregeordearen ordezkaria harresien aurrean jarri zenean, errenditzeko eskatu zien barruan zeudenei, enperadorearen izenean. Baina Jaime Belaz Medranok eta berekin zeuden nafar erregearen aldeko jauntxoek –tartean Xabier, Aginaga, Azkona eta Zareko jaunek– ez zuten amore eman. Gaztelu hartan hamaika borroka gertatu ziren aurretik, eta ez zeuden prest plaza besterik gabe uzteko. 1522ko uztailearen 12a zen eta handik zazpi egunera amaitu zuten asalto odoltsua espainiarrek.



Albako dukeak hamar urte lehenago Nafarroa inbaditu zuenetik, hainbat aldiz aldatu zen eskuz Amaiur: 1512an nafar eta frantziar tropek bereganatu zuten; 1513an Arazuriko Frances Beaumont kapitainak hartu zuen inbaditzaileentzat berriz ere; eta 1521ean nafarren lehen erasoaldiari eutsi ondoren, udazkenean Anton Alguacil alkaide gaztelar harroputzak bere burua entregatu behar izan zuen. Denbora horretan guztian, Amaiurrek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen, Pirinioetako igarobide estrategikoan egonik, artillerian oinarritutako armada handi eta modernoei aurre egiteko prestatu nahi izan zelako.

ESPAINIAKO ERREGEAK 1522KO ABUZTUAN AGINDU ZUEN GAZTELUA ERAISTEKO, "HARRIA HARRIAREN GAINEAN UTZI GABE"

Ezin ahaztu dezakegu zein zen tes-tuingurua. Nabarralde eta Hernani Errotzenek antolatutako *Amaiur gogoan* jardunaldian, Idoia Arrieta historialariak azpimarratu zuen monarkiak zentralizatzen ari ziren garaia zela eta hori lotuta zegoela "inperio unibertsal baten idealarekin". Hain justu, 1522. urtean eman zion Juan Sebastian Elkanok munduari bira: "Elkanok mundu bira horrekin harremanetan jarri zituen zuzenean kolonialismoa, inperialismoa, masa-esklabotza eta kapitalismoa". Pirinioetako bailara txiki bateko gaztelua kontrolatzeko interesa, beraz, askotan uste dena baino globalagoa zen.

“DENOK HILKO GARA BERAREKIN, GAZTELUA DEFENDATZEARREN”

Baina zein zen defendatzaileen egoera? Nola iritsi ziren gotorleku horretan setiatu egotera? 1521eko Noaingo porrota kolpe handia izan zen Enrike II.arentzat eta Nafarroako erreinua berreskuratu nahi izan zuten guztientzat. Komuneroen altxamenduak Gaztelan sorturiko nahasmenak aprobetxatuz, eta Frantziako erregearen laguntzarekin, okupatzaileak Ebroko mugaraino bidali zituzten hasiera batean.

Erantzuna berehalakoa izan zen eta, dakigun bezala, Noainen frantziar eta nafar tropak garaituak izan ziren. Hala ere, Bonnivet Frantziako almiranteak kontraerasoari ekin zion urte hartako udazkenean, eta Amaiur errendiarazi zuen nafarren alde –Hondarribiarekin batera–. Beraz, 1521eko urriaren 3tik aurrera, Belaz Medranoren kargupean aurkitzen dugu gaztelua.

Negua gordinak gerrak baldintzatzen zituen garai haietan, itxaronaldi arraro bat egon zen hainbat hilabetez. Belaz Medrano ez zen fio Baztanen eta Malerrekan agintzen zuten beaumontarrez, Urtsuako jauna tartean, eta horregatik frantziarrei laguntza eskatu zien –ikusirik Enrike II.ak ezin ziola baliabide nahikorik bermatu–. “Baina ez zen doan izan”, dio Peio Monteano historialariak *Amaiur 1522. Los navarros que defendieron el reino* (Amaiur 1522. Erresuma defendatu zuten nafarrak, Mintzoa, 2018) liburuan: “Baionara joan behar izan zuen eta Frantziako erregeari fidelotasuna eskaini”.

PIRINIOETAKO BAILARA TXIKI BATEKO GAZTELUA KONTROLATZEKO INTERESA, ASKOTAN USTE DENA BAINO GLOBALAGOA ZEN

Udaberritik aurrera liskar ugari gertatuko dira Donezteben kanpaturik dauden tropa inperialekin. Abagune horretan, ekainaren 30ean frantziarrek atzera egingo dute Irungo San Martzialen, Hondarribirantz, eta Amaiurko defendatzaileak erretagoardiako babesik gabe geratuko dira. Orduan abiatuko da Mirandako kondea, Nafarroako erregeordea, eurak asaltatzera milaka soldadurekin.

Hanka egin zezaketen, baina momenturen batean, ez dakigu noiz, Belaz Medrano eta gainerako jauntxo eta gerlari nafarrek erabakiko dute gazteluan geratzea: “Denok hilko gara berarekin, gaztelua defendatzearen”, idatziko dio



Amaiurko indusketetan agertutako XV. mendeko bigarren erdialdeko ezpata.

Etxalarko notarioak Urdazubiko abadeari... “Bera”, Belaz Medrano da, noski. Hor sartuko dira historia liburuetan eta literatura epikoan, Lauaxetak *Gaztelu baltza* olerkian izkiriatu moduan:

*Ikurrin bat –kate ta lili–
torre goitijan zabal dago.
Bera salduko daun semerik
mendi honetan ezta jayo.*

ARTILLERIA ZERUTIK, LEHERGAILUAK LUR AZPITIK

Itzul gaitezen 1522ko uztailearen 12ra. Badirudi ordurako Amaiurko goarnizioan aldaketa bat egon zela eta batez ere nafarrak geratuko direla bertan. Azkeneko pertsona egun horretan sartu zen gazteluan, arma eta hornidura gehiagorekin. Denek zuten buruan urtebete lehenago Donibane Garaziko gazteluan gertaturikoa: espainiarrek harrerit behera jaurti zituzten defendatzaileak eta Joanikot Arbe-roa kapitaina zatikatuta hil zuten Iruñean.

Monteanoren arabera, lehen eraso oinezko eta zaldizko espainiarrek jo zuten hurrengo

Gaztelu bat, herri bat eta mila urte

1095

Amaiur edo *Maier* dokumentuetan agertzen da lehen aldiz, Baionako katedralari egindako dohaintza batean.

1389

Amaiurko gazteluko bost dorreak egoera kaskarrean zeudela adierazi zuen obra maisu batek.

1512

Nafarroako konkistarekin, gaztelarren esku geratuko da. Hurrengo urteetan “trantsizioko gotorleku” bilakatu zuten, kubo erdizirkular, uharka eta horma lodi berriekin, artilleriaren erasoari aurre egiteko.

1266

Bidesariei loturiko lehen erreferentzia. Halako gazteluak muinoetan kokatzen ziren, eta funtzio militarra izateaz gain, merkataritza kontrolatzeko ere erabiltzen ziren.

1452

Joan II.aren eta bere seme Vianako Printzearen arteko gataketan –agaramontar eta beaumontarrak– gazteluari eraso egin zioten.

1521

Nafar erregearen aldeko tropek gaztelua berreskuratu zuten eta Jaime Belaz Medrano jarri zen defentsaren buru.



Gazteluaren aztarnak eta Amaiurko herria tontorretik. 1522ko borrokaldiaz gutxi badakigu, are gutxiago dakigu herritarrek bizi izandakoaz. URKO APAOLAZA

egunean, harresian eskailerak jarrita; baina Belaz Medranoren gizonak adore handiz eginarazi zieten atzera, kronikek eta lekukoek ziurtatzen dutenez. Ondoren artilleria hasi ziren erabiltzen etengabe, behin eta berriz. Hasiera batean bazirudien gazteluak eutsiko zuela, erasotzaileek zauritu ugari izan zituzten –erregeordeari berari hortzak hautsi zizkioten harrikada batez–, eta gaztelarren kanoi handiak izorratu egin ziren; gainera, Enrike II.aren aldeko tropa gehiago iristeko zorian ziren, Pirinioez bestalde-tik Amaiurko nafarrak laguntzera.

Orduan, Mirandako kondeak erabaki zuen gazteluaren azpian tunela egin eta mina batekin zartatzea hainbeste buruhauste ematen ari zitzaion harresi zilindrikoa –paradoxikoki espainiarrek aurreko urteetan eraikitakoa toki hura okupaturik izan zutenean–. Uztailaren 19an leherrarazi zuten aurrealdea eta irekitako ebakidura hain zen handia, barruan zeuden jauntxoek bandera zuria ateratzea beste erremediorik ez zutela izan, asko hilda, beste asko zauriturik, eta denak egun haietako borrokaldiak akituta baitzeuden.

NEKAZARIEN ETA EMAKUMEEN BEHAR GORRIA

Amaiurko bataillaz dakiguna kronika eskas batzuetatik eta garaiko arxiboko dokumentuetatik baino ezin dugu asmatu. Asko dira oraindik galderak eta historialarien zalantzak. Esaterako, zenbat eta zein ziren erasotzaileak? 2015ean Pedro Esarte eta Peio Monteanoren arteko eztabaida interesgarria izan zen *Diario de Noticias* egunkarian horren inguruan. Lehenengoaren esanetan, Gaztelako 6.200 soldadu erregularrek hartu zuten parte erasoan, Mirandako kondearen guardiako 360 aitoren seme-rekin batera, eta erasotzaileen artean gerlari nafarrak gutxi batzuk baino ez ziren. Aldiz, Monteanok zioen gaztelarrak ez zirela 1.500 oinezko eta 600 zaldizko baino gehiago izatera iritsi, eta nafarrak berriz 2.500 zirela, seguruenik asko “euren borondatearen kontra”.

Nolanahi ere, nahiko frogaturik dago erasoaren inizatiba eta pisua erregeordeak eta bere tropa espainiarrek hartu zutela, eta barruan zeuden gerlari ia denak nafarrak zirela, Enrike II.a Nafarroako erregearen alde borrokan. Beste kontu bat da herritarrekin zer gertatu zen, horretaz askoz gutxiago dakigu.

Adibidez, 1513an konkistatzaileek Amaiurko gaztelua gotortzeko obrak hasi zituztenean, emakume ugari hartu zuen parte. Hango uharka egiteko harriak, zura eta legarra garraiatu zituzten, eta 1522ko borrokaldiaren ondoren gaztelua sunsitzeko lanetan ere aritu ziren. Aranzadik eta Amaiur Gaztelu Elkartek hango Ar-

1522

Amaiurko borroka eta suntsipena. Defendatzaileak preso hartu eta hiru astera, gotorlekua zimenduak eta guzti leherrarazi zuten. Harrobi bezala erabiliko da eliza, etxeak eta hesiak eraikitzeko harriak lortzeko.

1794

Gazteluaren muinoan zegoen ermita aprobetxatuz, Konbentzioaren Gerran behin-behineko gotorleku bat eraiki zuten, baina frantziarrek suntsitu zuten ondoren.

2010

Aitor Pescador Aranzadiko kideak ordainagiri baten bidez frogatu zuen Amaiurko gazteluko atea Arraiozko Jauregizarreko bera dela, Urtsuako jaunari opari bezala emana 1522an.

1637

Europako Hogeita Hamar Urteko Gerraren testuinguruan gotorleku berria eraikitzen hasiko dira, baina handik hiru urtera lanak bertan behera utzi zituzten.

2006

Amaiurko herriak eta Baztango Udalak indusketak hasi zituzten auzolanean, Aranzadi Zientzia elkarteak gidatuta. Gazteluko zati garrantzitsuak azalera-zi dituzte eta aztarna ugari jaso (XV. mendeko ezpata bat, kanoi bolak...); gainera, ingurua museo bihurtu dute.

2020

Amaiurren Arkeologia Zentroa ireki zuten gazteluari eta herriari buruzko informazioarekin.

Burujabetzaren ikur, atzoko foruetatik biharko errepublikara

A maiurko 1522ko gertaera “ikur historiografiko bezala nahiko garaikidea da”, azaldu du Xabier Irujo historialariak Hernaniko *Amaiur gogoan* jardunaldietarako Youtuben paratutako bideoan: “Nafarroak erreinu izateari utzi zionean 1841ean –eta bigarren karlistaldiaren ondoren 1876an– Amaiur erresistentziaren ikur bilakatzen da”.

Juan Iturralde y Suit idazle eta margolari iruindarra izan zen lehenengotakoa Amaiur aldarrikatzen XIX.

mendean, berak sortutako Nafarroako Euskal Elkargoaren bidez, eta 1922an lehen obeliskoa inauguratu zen –besteak beste Julio Altadill eta Arturo Campionen bultzadaz–, borrokaldiaren 400. urtemugan. Baina 1931n errepublika ezarri eta gutxira eskuindarren atentatu batek deuseztatu zuen monumentua eta ez zen 1982ra arte berregin. “Bitarte horretan, abertzaletasunak Amaiurren atzean zegoen historia garatu eta bere egin zuen”, dio Irujok.

Geroztik, 1936ko Gerrako batai-

loiak, ETAko komandoak, aldizkariak eta koalizio politikoak sortu izan dira izen horrekin, besteak beste.

NAFARROA BERRIZ ALTXA: “500 URTE GEROAGO HEMEN GAUDE ZUTIK”

Gaur egunera etorrita, subiranotasunaren aldeko mugimenduaren topagune bihurtu da Amaiur. Nafarroa Berriz Altza ekimenak ekainaren 5ean egindako *Amaiuraldia*-n esan zuen 500 urte pasa izanagatik, “gaurkotasan” handiko aldarrikapena dela, “egunerokotasunean eragina duten erabakiak non eta nork hartzen dituen” gakoa baita euren ustez.

“Zer eta nola kontsumitu behar dugun baldintzatzen dute –azaldu zuten Amagoia Susperregik eta Eneko Compainsek gaztelua dagoen tontorretik, ehunka lagunen aurrean–, lan harreman markoa edo gure gastu aurrekontuek izan behar duten gastu sabaia arautu... Hemen libreki hartzen ez diren erabakiek, nafarrek krisi ezberdinei ematen dizkiegun erantzunak baldintzatzen dituzte: krisi klimatikoa, elikadura, energia edo migrazio krisiei, esaterako”.



AMAIUR/EUS



URKO ARAIOLAZA

Goiko irudietan: azken bi hamarkadetan egin dituzten indusketen eta musealizazio prozesuaren ondorioz Amaiurko gazteluaren aztarnak hartu duten itxura, airetik ikusita; eta tontorretik gertu dagoen menhir edo “erresistente ezezagunaren monumentua”, Peio Iraizozek egin eta 2007an jarria. *Pro libertate patria, gens libera state* irakur liteke bertan: aberri askearen alde, jendea libre jaiki.

Behoko irudian: Amaiurko tontorrean 1922ko ekainean obeliskoa inauguratzen, 400 urte lehenago gaztelua defendatzen aritu zirenen omenez.



JULIO ALTADILL

PROFILA

Jaime Belaz Medrano, nor zen?

Amaiurko 1522ko gertaeren protagonista nagusia, Iguzkitzako familiaren dorretxean jaio zen 1475 urte inguruan. Bere leinuak nafar erregeekin zein agaramontar familiekin zituen loturen ondorioz, 1512an erresistentzia antolatzen ibiliko da Pedro Nafarroakoa mariskalaren ondoan.

Ondoren, konkistatzaileen kontrako altxaldi guztietan ikusiko dugu lehen lerroan: 1513an, 1516an eta 1521ean. Amaiurren bere burua entregatu zuen, seguruenik erreskate bidez libre geratu eta beste altxaldi bat antolatzeko itxaropenarekin. Baina Iruñeko ziegatan hil zuten; nola ez dakigu.

Oinordekoek ez zuten orduz geroztik Jaime Belaz Medrano eta Etxauzen aipamenik egin eta bere izena eta historia oharkabean igaro da askorentzat.

keologia Zentrarako egindako bisita liburuan ageri denez, gutxienez 70 emakume amaiurtarren izenak daude dokumentazioan, harginei laguntzen: Maria Bortari, Graziana Irigoien, Katherina Arretxe, Johana Pezoinarte... "Hala ere, haien soldata gizonetzkoena baino apalagoa izaten zen", irakur liteke liburuxkan. Hain juxtu, haietako baten ibilerak ditu oinarri Asisko Urmenetak *Amaiur! Libera State* (Erroa, 2022) komiki liburuan.

Ez zen txikia izan herritarren kontrako bortxa, Mirandako kondeak bere gu-

darostea elikatzeko erabilitakoa kasu. Aurreko urtetako uzta txarren ondotik behar gorrian izanik ere –Asparrotseko jaunak Noaingo gudua galdu izanaren arrazoietakoa bat hori izan zen–, gurdia eta animaliak konfiskatu zizkieten askori, horretarako eskualde urrunenertara ere soldaduak bidaliz agindua betetzeari uko egiten ziotenak atxilotzeko. Esartek aztertu duenez, Erriberrin, Tafallan, Zangozan, Lizarran eta beste hainbat tokitan lortu zituzten espainiarrek hornidurak, eta Luis Beaumont Leringo kondearen laguntzarekin garraiatu zituzten Belateko bortuan barrena Amaiurrera.

GALTZAILEEN ZIGORRA ETA PATUA

Amaiurko gazteluan bandera zuria jaso orduko, barruan zeuden ia denak preso hartu zituzten, bizia errespetatzearen ordainetan; tartean ziren borrokaldia gidatu zuten jauntxoak: Xabierko Miguel –Frantziskoren anaia–; Victor Mauleon eta bere anaia Luis; Juan Oiloki; Juan Azpilkueta; baita Jaime Belaz Medrano eta bere semea ere.

Uztailaren 23an Iruñera eraman eta Santiagoko gazteluan giltzapetu zituzten. Badirudi erregeordea arduratuta zegoela presoan "segurtasunarekin", beste ba-

tzuek berriz erreskatea exijitzen zuten, eta ihesaldi saiakeraren bat ere izan omen zen guardiei eskupekota emanda... Nolanahi ere, hilabete ingurura Belaz Medrano eta bere semea ziegatan hil zituzten, oraindik argitu gabe dagoen gertaera ilunean. Haien oroimena historiari irentsi du ia gaur arte. Gazteluak ere ez zuen patu hoberik izan. Karlos V.a enperadoreak agindu zuen "harria harriaren gainean utzi gabe" eraisteko, eta hala egin zuten: abuztuaren 11n eztanda handi bat entzun zen Baztan osoan, Amaiur betirako desagerrarazteko asmoz jarritako lehergailuek eragindakoa.

Jose María Jimeno Juriok idatzi zuen Amaiurko historia ez zela 1522an bukatu, ondoren herriaren fisionomia soziala egituratu zela; baina gaztelua defendatu zuten nafarrak "traidore bezala hartu zituen irabazleak". Ez alferrik ikusten ditugu urtebete geroago Espainiako erregeak emandako barkamenetik baztertuta dozenaka lagun, "beren aberriaren kontra matxinatzeagatik". Zigorra eta eskarmentua.

Noaingoaren eta Amaiurkoaren ostean, egoera "zuzentzea" zaila zela ikusita, beaumontar zein agaramontar izan, norbere interesen eta boterearen alde hasi zela zioen Maria Puy Huici ikertzaileak konkistari buruzko bere liburu kritikoa, baina hala ere, askok oraindik pentsatzen zutela konkista ez zela atzeraezina, monarka espainiarrak barne: "Enperadoreak berak konkistaren legitimotasuna zalantzan jarri zuen". Agian horrela hobeto uler liteke zergatik egon den gure historiaren ikur hori orain arte, badaezpada, lur azpian sartuta, herritarren auzolanak azalerazi duen arte. ●

Arraiozko Jauregizarreko atea Amaiurren 1522an zegoen bera da, eta Urtsuako jaunari eman zioten opari, borrokaldian espainiarren alde aritzeagatik.



Prostituzioa ez da lanbide bat, esplotazio mota bat baizik”

Amelia Tiganus

300 euroren truke proxeneta bati saldua izan zen Amelia Tiganus (Galati, Errumania, 1984), 18 urte zituela. Bost urtez prostituzioan aritu zen klubez klub eta Gipuzkoako putetxe bat izan zen ibilbide hartako azkena. Tolosaldean bizi da geroztik. Egun, prostituzioaren abolizioaren aldeko munduko aktibista ezagunenetakoa da. Bere historia eta borroka *La revuelta de las putas* (Prostituten matxinada, Ediciones B, 2021) liburuan kontatu du.

  ANDER LEON NANCLARES

Aspaldi utzita baduzu ere, zure burua “puta” bezala definitzen duzu.

Bai, eta arrazoiak badituz. Alde batetik irainaren presioa kentzeko; erasotzeko modu bat “puta” deitzea izaten baita, eta aurretik naizela esaten badut, desarmatuta geratzen dira. Beste alde batetik, ez dut nahi prostituzioan aritzen direnengandik desmarkatu edo haiek baztertu, gainera nire nortasunean badago oraindik puta zati garrantzitsua, hortik ateratzeak utzi didan aztarna besteak beste. Ezin dut ukatu puta naizela eta gainera ez dut nahi.

“Sexu langilea” ez zaizu gustatzen.

Ez, izen hori lobby proxenetak bultzatutakoa da; beraiek proposatu zuten izendapen aseptikoa izateko, alde

iluna ezkutatzeko, prostituzioa lan harreman arrunta bezala aurkeztu ahal izateko. Puta langilea bada, beraiek enpresari zintzoak dira, ez benetan direna, miseriaren esplotatzaileak. Ezustean, arlo progresista askotan hitz hori onartu eta baliatzen da emakumeen duintasunaren izenean.

“Putero” hitza ere erabiltzen duzu...

Oso egokia iruditzen zaidalako. Eufemismoak desagertzearen aldekoa naiz. Bezeroa? Erabiltzailea? Kontsumitzailea? Zer kontsumitzen dute? Zer erabiltzen dute? Pertsonak, emakumeak, neskak. Putero askoz egokiagoa da, eta gainera badakit ez zaiela batere gustatzen; beraz, aurrera. Tristeia da, baina euskal gizonezkoen %39 puteroa da edo izan da noizbait.

Liburuan putero deitzen diezun pertsona mota desberdinak aipatzen dituzu, azaldu dezakezu zure ustez zein diren?

Logelan egon arte ez duzu zurea zein motatakoa den antzematen. Hasieran beraien ustez jatorrak dira, hitz egin nahi dute, azalpenak ematen dituzte, puta neskalaguna balitz bezala tratatu... Ez, ez da horrela, egin beharrekoa egin eta ospa, nire gorputza erosten duzu baina nire arima ez. Gero *matxoak* datoz, bere bizitzaren ardatza ahalik eta emakume gehien zulatzea dena, “konkistak” zenbaitzen dituztenak. Bukatzeko misoginoak, emakumeak gorrotatzen dituztenak. Azken horiek biolentoak eta arriskutsuak izaten dira. Putero bezala katalogatzen ez badugu ere, badago beste espezie bat, putetxetara joaten dena “soilik trago bat” hartzera. Horiek ere sistemaren parte dira. Parrandan daude eta klubera joaten dira taberna arruntetan egin ezin dutena egitera, hau da, neskei lizunkeriak esatera, beraiei aurpegian barre egitera, ahal dutena ukitzera edo komunean mas-turbatzera. Kubataren prezioaren hiru-koitza ordaintzen dute, gizarte librean onartezina dena gure kontzentrazio esparruan egiteko.

Putetxea kontzentrazio esparrua?

Ekosistema berezia da. Hasiara batean, hor dauden emakumeak libreak dira, baina ez dut inoiz prostituzioan aritzen den neskarik ezagutu bizimodu hori utzi



nahi ez duenik. Denak daude hor beraien borondatearen kontra, ustezko zorrak kitatzen, mehatxupearan edo beste irtenbiderik ez dutelako. Gaixotasun eta heriotza esparruak dira, higienezaren kontra, biolentoak, duintasunik gabekoak. Askotan manifestazio feminista pasa izan da klub baten aurretik, "Ahizpa, sines-ten dizut" edo "Ez ezetz da" oihukatuz, horma horren bestaldean gertatzen dena kontutan hartu gabe, hor taberna arrunta balego bezala. Feminista batzuentzat iku-sezinak bagara, pentsa gizartearentzat.

Prostituzioak gizartean eragin handia dauka, noraino iristen da sistema hori?

Estatuan egunero bost miloi euro mugitzen ditu prostituzioak, eta horiek BP-Gren kalkuluan daude zenbatuta. Sistema

“

Puta langilea bada, beraien enpresari zintzoak dira, ez benetan direna, miseriaren esplotatzaileak”

horretan jende asko dago: proxenetak, udal karguak, putetxeetan negozioren arrakastak ospatzen dituzten enpresarioak... Denek ateratzen dute zerbait, baina prostituzioan aritzen diren nesken borondatearen arazoa dela ematen du.

Klasismoan, matxismoan, arrazakerian eta biolentzian oinarritutako sistema da.

Zein dira jasandako biolentzia horren ondorioak?

Ondorio fisikoak ikaragarriak dira: orduak ematen ditugu takoi pare deseroso baten gainean, elikadura txarra, gaixotasunak, droga menpekotasuna, derrigor-tutako abortuak... Baina psikologikoak ez dira txikiagoak: apatia, depresioa, autoestimu eza, estresa, beldurra, mesfidantza, autolesioak... Eta horri gehitu behar zaio bezeroen eta proxeneten partetik jasandako biolentzia.

Baina ezkutuan gelditzen dela dirudi.

Proxenetak ez du merkantzia kaltetu nahi, beraz kontu handiz ibiltzen da. Bezeroena beste kontu bat da. Feminizi-

dioak uste baino ugariagoak dira. Klub batetik neska atzerritar bat desagertzen bada, zeinek botako du faltan? Beste klub batera joan dela edo bere herrialdera itzuli dela esaten da, eta inork ez du ezer gehiago galdetzen. Orain dela gutxi arte, prostituten hilketak ez ziren genero indarkeria kontsideratzen, hildakoak ez ziren zerrendetan azaltzen. Orain hori aldatu da, baina ezin da ahaztu estatuan gutxienez 48 prostituta hil dituztela azken urteetan, haietako batzuk Euskal Herrian.

Zerbitzu publikoa dela esaten dutenei zer erantzun zenuke?

Zer zerbitzu? Neska baten barruan isuritzearen eskubidea bermatzekoa? Bortxaketak saihestekoa? Hor bi puntu daude. Bat: gizonak kontrolaezinak direnaren ustea. Bi: hala balitz, billete baten trukean batzuk, "galduok", sakrifikuak eta bortxatuak izan beharko dugula besteak, "zintzoak", salbatu ahal izateko. Emakumeak bi multzotan banatzen dira: diruaren truke bortxagarriak direnak eta besteak, zaindu beharrekoak. Hau da defendatzen duten zerbitzu publikoa.

Eta bezeroa aukeratzeko eskubidea duzuela esaten dutenekin, zer?

Usoak badu ehiztaria aukeratzeko eskubidea? Asmoa ahalik eta diru gehien egitea da, ez da komeni bezeroari uko egitea, gehien bat ospe txarra hartzen duzulako. Puteroek aplikazio batzuk sortu dituzte eta hor neskak eta beraien zerbitzuak puntuatu eta komentatzen dituzte, hotelak eta jatetxeak balira bezala. Puntuazio txarrak gizonak aukeratzen lortzen dira, besteak beste. Konpetentzia handia da, Ukrainako gerra aprobetxatuz neska gehiago ekartzen dituzte, baina orain *Kilometro 0* moda prostituziora ere heldu da. Askotan sare sozialetan ikusten dituzten hemengo neskak erakartzen saiatzen dira *Only fans* bezalako ereduekin. Kontu handiz ibili behar da.

Ez duzu prostituzioa arautzerik nahi, baina ez zaude debekatzearen alde...

Prostituzioa arautzea neoliberalismotik baino ezin da ulertu, dena salgai dagoenaren ustetik. Baina ezberdintasunean oinarrituta dago, klase, generoa eta arraza ezberdintasunean ere, esango nuke. Eredu hori Alemanian eta Herbeheretan dago indarrean, eta datuei erreparatuta, porrota izan da: emakumeen kontrako indarkeria igo egin da eta bortxaketak ere bai.



“

Prostituzioa arautzea neoliberalismotik baino ezin da ulertu, dena salgai dagoen ustetik. Baina ezberdintasunean oinarrituta dago”

Debekua, berriz, irtenbide moralista edo kontserbadorea da: arazoa ez da prostituzioa, ikusgai egotea baizik. Ekialdeko Europako eredia da hori eta ez ditu giza eskubideak kontutan hartzen. Azkenean prostitutak zigortzen dira, erruduna ahulena balitz bezala.

Abolizioa da proposatzen duzuen, baina nola?

Neurrien konbinazio batekin. Batzuk positiboak: diru-laguntzak, aholkularitza, lan-poltsa, arreta psikologikoa... Eta beste batzuk zigor tankerakoak, bereziki proxeneta eta puteroen kontrakoak. Triste da baina legeak irakasten du. Gaur egun inori ez zaio okurrizten jatetxean zigarroa piztea, legeak ez duelako uzten eta denok dakigulako gaizki dagoela. Prostituzioarekin gauza bera, puteroari isuna jartzen bazaio, denok jakingo dute gaizki egin duela eta eredu-garria izango da; eskaria da desaktibatu

behar dena. Herrialde eskandinaviarretako eredia da.

Prostituzioa utzi zenuen, baina gogorra izango zen urrats hori ematea. Nola lortu zenuen?

Irtenbide indibidualak bilatzen dira, baikoitzak berea. Klubetan ikusi ditudan matxinadak norbanakoenak izan dira, eta gehienetan droga edo alkoholaren menpe egindakoak. Iraultza ez da egingo bakarrik eta drogatuta, hori argi dago. Nik ere irtenbide pertsonala bilatu nuen. Hasieran gizon batek etxea eta janaria eskaini zidan sexu harremanen truke. Hortik hasi nintzen lan bila eta ez, ez zen erraza izan. Puta eta errumaniarra nintzen, dena neukan. Ez zidaten ezer esaten baina begiradek dena azaltzen zuten. Urteak pasata, bertako gizon batekin ezkondu nintzen eta horrek eman zidan zilegitasuna, hor hasi nintzen onartua izaten. Gero feminismora heldu nintzen eta hortik aktibismora, abolizioaren aldeko borrokara.

Prostituzioa lanbiderik zaharrena dela eta desagerraraztea ezinezkoa dela esan ohi da. Ezinezkoa da?

Hasteko, prostituzioa ez da lanbide bat, esplotazio mota bat baizik. Gauzak horrela direla eta ezin direla aldatu pentsatzen dutenei historiako hainbat adibide emango nizkieke. Emakumeak antolatu direnean, bere garaian pentsaezinak ziren lorpenak eskuratu dituzte: boto eskubidea, dibortzioa, abortu eskubidea... Borroka egin behar da, bestela ez dago ezer lortzerik. ●

EAEko DBHko ikastetxe batzuk jardunaldi jarraiaren alde mobilizatzen hasi dira

Pandemia dela-eta, azken ikasturteetan jardunaldi jarraia izan dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe askok. Praktikan probatu dutenean, ikastetxe batzuei egokiagoa iruditu zaie eguerdian bukatzen den jardunaldi mota hau eskolak goiz eta arratsalde zatitzen dituen baina, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari eskatu diote hurrengo ikasturtean ere hala jarraitzeko aukera ematea.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Legeak eskatzen dituen klase ordu kopuruak ematen badira, zergatik ezin du ikastetxe bakoitzak bere ordutegia erabakitzeko autonomia eduki? Ez dugu beste ikastetxeekin eztabaidan sartu nahi ea besteentzat onena zer den, baina gure kasuan oso argi dago zein jardunaldi motak duen adostasun ia erabatekoa". Hala adierazi du Billabonako DBHko ikastetxe publikoko Arratzain guraso elkarteak eta bere ikastetxearen ezaugarriak azaldu ditu: "Aiztondo bailara osoko ikasleak biltzen dituen eta herrigunetik aparte dagoen ikastetxea da: ikasleen erdiak (174 zehazki) garraiatuak dira, egunero autobusez joan-etorria egiten dute inguruko herrietatik. Beraz, jardunaldi etena egiteak alde batetik dakar ikasleek etxetik kanpo ordu asko egiten dituztela, eta bestetik, jangelaren kliente kautibo direla, hau da, ikasle askorentzat jangelan geratzea ez dela aukera bat, ezinbestean duten aukera bakarra baizik. Aldiz, jardunaldi jarraia egiteak bermatzen du jangelan geratzeko aukera (azken ikasturteetan egin dugun bezala)".

EAEn 333 ikastetxe dira hurrengo ikasturtean DBH eskainiko dutenak eta zaila da jakitea hauetatik zenbat ari diren jardunaldi jarraia eskatzen, eta zenbatean ari diren gaiaz eztabaidatzen. Jardunaldi jarraiaren aldeko plataforman oraingoz hamasei ikastetxe daude elkartuta.

Erabakitzeko autonomia eskatzen duten ikastetxeetan, jardunaldi jarraia-

Billabonako Ernio-beako ikasle, irakasle eta gurasoek ekainaren 10 eguerdian egindako elkarretaratzea.



ren aldeko kontsentsua oso sendoa da eta ikastetxeko Organo Gorenetan onartu da jardunaldi jarraiaren aldekotasuna: adibidez, Ernio-bea ikastetxeak ia egin zuen galdeketa, jardunaldi jarraiaren alde agertu ziren erantzun zuten familien %98,72, ikasleen %97,6 eta irakasleen %93,2.

EZTABAIDAK

Arratsaldea antolatzeko moduan eragin zuzena du jardunaldi motak. Hain zuzen, argudio hori da Ernio-bea ikastetxeko gurasoek eman dutena: "Jardunaldi jarraiak aukera ematen du eguna hobe antolatzeko, adibidez, se-

me-alabek eskolako lanak egiteaz gain arratsaldean beste jardura batzuk ere egin ahal izateko, lanak gauean pilatu gabe".

Horrez gain, jantokien gaia berriz mahai-gainera atera da: familia horietako asko catering sistemaren "bezero kautibo" sentitzen dira, eguerdian joan-etorria egiteko aukerarik ez dutelako. Familia horiek ez dute ulertzen zergatik ez dagoen beste aukerarik, adibidez, zergatik ezin den etxetik janaria eraman eta ikastetxean jan. Bertako sukaldea martxan jartzeko gogo berriz hauspotu du familia batzuegan jardunaldi zati-tuaren gaiak. ●

IÑAKI AZANZA

TXIRRINDULARITZA ARGAZKITAN

“Ziklismoaren bidez herri baten historia konta daiteke”

Iñaki Azanza ordiziarra 1978an joan zen lehenbizikoz Frantziako Tourra ikustera. Zenbat milaka argazki atera ote ditu ordutik! Pasioz bizi du txirrindularitza. Agian horregatik, mina eragiten dio hemen inguruko lasterketen patuak. “Etxeko karrerak zaindu egin behar dira”, esan digu, antolaketa-lanetan aritzen diren boluntarioen ahalegina aitortzearekin bat.

 JON TORNER ZABALA  IÑAKI AZANZA

Ordiziako taberna batean bildu gara Iñaki Azanzarekin, Gudarien Etorbideak eta Foruen Pasealekuak bat egiten duten bidegurutzean, 1961az geroztik Ordiziako Proba amaitzen den lekutik oso hurbil. Duela mende bat sortua, datorren urtean egingo da 100. edizioa –gudak zanpatu zituen 1936 eta 1937koa–. Zifraren borobila akuilu, lasterketaren ibilbidea jasoko duen liburua plazaratuko du 2023an. “Ziklismoaren bidez herri baten historia konta daiteke, eta horretan saiatu naiz ni”, esan digu. Liburuaren aitzakiarekin egin dugu enkontrua, baina solasaldiak errebuelta gehiago hartu ditu ziklistek Alpe D’Huez mendatean gora baino. Hainbeste gauza baitauzka Azanzak kontatzeko!

Bertakoa izanik, Ordiziako Probari “kariño” berezia dio. Ordiziakoari, eta inguruan egiten diren, edo ziren, beste hainbat lasterketari. Penatu antzean sumatu dugu, ikusten duelako azken urteetan ez garela hurbileko karrerak

behar beste zaintzen ari: “Kritikoa naiz gertatzen ari diren gauza batzuekin. Esaterako, dirutza gastatuko dute Frantziako Tourra ekartzeko, zeina zoragarri iruditzen zaidan, baina ingurura begiratu eta... Udaberriko Klasikoa, adibidez, hiltzen utzi dute, eta atzean historia bat du”. Zornotzako lasterketaz gain beste batzuk ere aipa genitzake, Euskal Bizikleta, Laudioko Sari Nagusia, Urkiolako Igoera eta Emakumeen Euskal Bira esaterako, babes ekonomiko faltagatik edota antolakuntzan erreleborik izan ez delako desagertuak.

OINARRIAN ERE LABANKADA

Egutegian zulatuak handitu diren bezala, kamusten ari da ziklista gazteen harrobia, Azanzaren hitzetan: “Aurrekoan izan nintzen jubencil mailako Gipuzkoako Klasikoa ikusten, eta ez ziren asko izango 30-40 lehenbizikoetan sailkatu ziren ziklista euskaldunak”. Dioenez, amateurretan badira hiruzpalau gazte Euskaldun Txapelketan txukun dabilzanak, baina kanpora ateratzen direnean

Espainiako Kopa-edo lehiatzera, nekez nabarmentzen dira besteen gaineratik. “Batuetan galdetzen diot neure buruari: zergatik ari da hau gertatzen?”.

Teoria potolorik ez badu ere, esan digu zerikusia izan dezakeela gure bizimoduarekin. “*Per capita* errenta altua dugu Euskal Herrian, bizitza estilo bat non aisialdiak pisu handi xamarra duen, eta horrek talka egin dezake erresistentziako kirolek eskatzen duten sakrifizioarekin. Ziklista batek, edo korrikalariak, dezenteko denbora eskaini behar dio entrenamenduari, eta entrenamendu bat ona da errekupeartzeko tartea hartzen duzunean. Atsedena funtsezkoa da, eta ez dakit jende gaztea horretarako prest ote dagoen. Inguruan ikusi dut. Kirolari onak diren gazteak, lagunek gupasa egiten dutenean tentazioari eutsi ezin diotenak”.

Halaber, talde bat osatzea gero eta garestiagoa da. 1980ko hamarkadako panorama ongi ezagutzen duen lagun baten esperientziaz hitz egin digu Azanzak: “Hark esaten du garai hartan afa-

ri bat antolatzen bazuenen, eta tartean baldin bazegoen ziklismoa gustuko zuen enpresariren bat, bigarren whiskiarekin finantzaketaren gaia ateraz gero oso litekeena zela bizpahiru egunera 100.000 pezeta ematea, arropa erosteko-edo". Reynolds talde nafarrak hitz egin digu, "lau enpresariren diruari esker" 1980an sortu zen proiektuaz. Orduan ere ziklismoak ez zuen Espainiako Estatuan une gozoa bizi, eta Reynolds izan zen susperraldia hauspotu zuenetako bat. Gaur egun ordea diru askoz ere gehiago behar da, baita kontinental mailako taldea osatzeko ere.

Errepidekoan baino are beltzago bistaritzen du Azanzak lokatz gainekoaren etorkizuna: "Ziklo-krosa oso baxu dago. Estimuan dudan diziplina da, 1960ko hamarkadan nire anaia batek lehiatu egiten zuen, eta umetatik ikusi ditut karrerak. Gorka Izagirrek salbatu du ziklo-krosa gurean, hark eman dio prestigioa. Gainerakoan ez dago deus, oinarritik

bertatik hasita. Antolatzaileek sekulako meritua dute, kristorena! Aldiz, aitor-tzarik txikiena jasotzen duten aktoreak dira. Ia dena borondatez egiten da hemen, eta zaila da jende gaztea erakartzea. Pasioak mugitzen dituen lau zaharrrak doazenean zer pasako da?". Bada egoera konplikatzen duen beste faktore bat, Azanzak dioenez. Salbuespenak salbuespen, talde profesional batzuek, Movistarrek esaterako eta duela urte batzuk Euskaltel Euskadik, haien ziklistei ez diete ziklo-krosa egiten uzten. "Talde profesionalak trabak jartzen badituzte, nekez izango du konponbiderik".

EZIN IKUSIAK, SUFRIMENDUAK ESTALIAK

Euskal Herrian txirrindularitza nola bizi den hizpide hartuta, ñabardura interesgarria egin ohi du ordiziarrek, "forofu" eta "jarraitzaile" figuren artean. Bigarren hori da lan egiten duena, laguntzeko gertu dagoena. "Horietatik gutxiago

dago". Hemengo afizioa munduko onenetakoa dela esan digu, baina Italian edota Flandrian inplikazio handiagoa dutela, lasterketak beste modu batean bizi dituztela.

Kontatu diot, duela urte mordoaxka bat, gurasoekin Donostiako Klasikoa ikustera joan nintzela Miracruz gainera, eta nire anaia, Marino-zalea izanik, errepide bazterretik Pedro Delgado ziklistari pitokeriak esaten hasi zitzaiola, eta nola aitak kokotekoa eman zion, karrera batean ziklistarik ez delako iraindu behar sekula ere, begikoa izan ala ez. "Ondo egina", esan digu Azanzak. Galdetu diogu bere ustez txirrindularitzak futbolaren traza hartu ote duen, zenbait jende kritikatu duen moduan, zaleek gero eta errespetu gutxiago erakusten dutelako ziklistekiko. "Irudipena dut batez ere izan dela Frantziako Tourrari lotutako zerbait", dio. "Gauza itsusiak ikusten dira, baina gutxitan. Hainbeste jende dagoen lekuan, kirolariengandik metro



Iñaki Azanza, Philippe Gilbert klasikozale handiarekin, 2013ko Euskal Herriko Itzulian, Elgoibarren. 2012an Munduko Txapelketa irabazi zuen belgikarrak.



Miguel Indurain hiru hitzetan definitu digu Azanzak: "Indarra, lana eta pertseberantzia". Argazkian, 1994ko Frantziako Tourrean, Avoriazoko krono-igoeran.



2015eko Euskal Herriko Itzulia, Zumarragako Antiguano. Euskal zaleak munduko onenetakoak direla dio Azanzak, baina "umilagoak" izan behar dugula batzuetan, geure buruari dominak jartzerakoan, bai baitira ziklismoa pasio handiz bizi duten zalego gehiago, italiarra eta flandriarra kasu.

erdira... ia ezer ez gertatzea adierazgarria da. Zuk kontatu didazun pasadizoaren harira, badut lagun bat ziklista bat gorroto zuena, hari buruz gaizki esaka beti, eta Tourreko etapa batean kotxe-eskoba aurretik pasatzen ikusi zuenean, nola animatu zuen!". Zale orok sentitu du gauza bera, ziklista bat -begikoa izan ala ez- sufritzen ari dela ikustean, baina baita egurrean doanean ere, norberaren barrenetik ateratzen den animo oihua, emozioa.

Sufrimendua, sakrifizioa, esfortzua. Ziklismoari atxikitzen zaizkion ezaugarriak dira. Aitzakia eman digu kirol honek urteotan izan duen garapenaz hizketan hasteko. Ordiziako Probaren historiak erakusten digu izugarri aldatu direla ez soilik prestakuntza, materiala, elikadura edota lehiatzeko manierak, baita ziklismoa ulertzeko forma ere. Liburuan jasoko dituen bitxikerietako baten berri eman digu Azanzak: 1930eko hamarkadan, irteerako izen-ematean "XX" bezala sinatzen zuen ziklista

askok, benetako izen-abizenak ez jartzearen, antza esparru batzuetan ez zegoelako ongi ikusia txirrindularia izatea.

1922an eta ondorengo bizpahiru urteetan, garai hartako beste askoren moduan, lasterketa "txikia" zen Ordiziakoa, bertako eta inguruko jendeak ematen zuen izena, harik eta hamarkadaren erdialdera hurbileko txirrindulari profesional gutxi batzuk ere parte hartzen hasi ziren arte. Susperraldia apur bat beranduago helduko zen, II. Errepublika garaian, Eibarren eta beste zenbait herritan egiten ziren lasterketen abaroan. Zergatik *boom* hori Errepublika Garaian? "Uste dut izan daitekeela kirolak, kulturak bezala, maila sozial bat egin zuelako gora, nolabait esatearren. Prestigioa eman zitzaion eta kirol ugaritara zegoen sarbidea", azaldu digu argazkilariak.

ERREPORTARI SENA

Bizi-bizi mintzo da ordiziarra. Ezagutu ditu lasterketa, ziklista, presta-

ZIKLOAMATORE

Azanzak gogoan du, bost urte zituela, José Luis aniak bere bizikletan igo eta Ordiziako Ibares bidegurutzera eman zuela Eibarko Bizikleta ikustera. Oroitzapen abstraktuak ditu egun hartan bitzitakoaz, baina barru-barruan dauzka iltzatuak, urteen joan-etorrian desagertu ez den pasioaren isla: koloreak, soinuak, zaleen oihuak, emozioak... Ikusle moduan ez ezik, tropelaren barrutik ere ezagutu zuen ziklismoa, 1973-80 artean hainbat karreratan parte hartu zuenean. Lehia utzi ostean bizikletari lotuta jarraitu zuen, mendi txangoetara eraman ohi zuen argazki kamerari helduta. Egun, argazkilaritza-lanak uztartzen ditu Zaldibian duen landare eta lore haztegiko beharrekin.

2004 inguruan iloba bisitan joan zitzaion etxera, eta ikusi zuenean osabak ikaragarri diapositiba piloa zuela armairuan gordeta, xaxatu egin zuen: "Jendeak behar du hau dena ikusi". "Eta, zer nahi duzu, balkoira ateratzea?", arrapostu Azanzak. Ez, ilobak webgunea zuen buruan. Handik gutxira sortu zuten Zikloamatore.com argazki album birtuala.

tzaile eta antolatzaile mordoia. Bataz eta besteaz hizketan, ia ahaztu zaigu argazkilari jardunaz galdetzea. 1978an joan zen aurrenekoz Frantziako Tourra bertatik bertara ikustera. Ordiziatik abiatu eta Alpeetaraino, 200 kilometro autobide besterik ez zegoen garai hartan. “Bidaia bera abentura bat zen”. 1970eko hamarkadan hainbat karreratan lehiatu zuen Azanzak, infantiletatik amateurretara. Jose Nazabalekin batera entrenatzen zen, eta gogoan du 1978ko egun hartan zer nolako zirrara sentitu zuen Alpe D’Huez mendatean zaldibiarra aurrez-aurre ikusi zuenean. “Orduan ohar-tu nintzen Tourraren handitasunaz”. Eta orduan atera zuen gehien maite duen argazkietako bat (goian): Michel Pollentier, Mendiko maillota soinean.

Elkarrizketa egin eta egun gutxira Italiako Girora joatekoa zen ordiziarra: “Argazkilaria naizen aldetik, sasoi ezin hobean egiten da, eguraldia dela-eta etapa batzuk bertan behera gera daitezkeen arren”. Senegalen izana da lasterketak ikusten, Costa Rican... Hizketan ari dela, dena den, ageri zaio klasiko handiak estimu berezian dituela, Paris-Roubaix monumentuari buruz ari denean adibidez. “Iazkoa, urrian egin zena, zirrara-garria izan zen. Urteak ziren horrelakorik ikusten ez genuela, oso fotogenikoa izan zen, lokatz horrekin guztiarekin. Jendeak esaten dizu: ‘Aurtengoa ez zen hainbesterako izango, ala?’. Desberdina izan da, baina polita era berean. Baldintzak direnak direla, argazkilari moduan ezinbestekoa da egoerari egokitzea, erreportari sena izan eta unean unekoa ahalik eta hoberen harrapatzea”.

Hainbat hedabidetan kolaboratzaile, errepide bazterretik ez ezik, motorretik argazkiak ateratzen aritu da hamabost bat urtean, Emakumeen Biran tartean. Galdetu diogu, ea nesken ziklismoa nola ikusten duen. “Kirol mailari dagokionez gorantz doa, karrerak entretenigarriagoak dira. Aldiz, iruditzen zait, agian, emakumezkoen kirola oro har gehiegi puztzen ari dela, diru publiko askorekin. Inbertitzea ongi dago, noski, baina arriskutsua izan daiteke, laguntzak egun batetik bestera desagertu daitezkeelako, eta orduan... Finantzaketa beharrezkoa da, baina beste gauza batzuk ere zaindu behar dira, oinarritik hasita”.

Hamabi bat urterekin ikasi zuen Azanzak argazkiak zuri-beltzean errebelatzen, etxeko bainugelan. Zenbat milaka irudi izango duen gordeta, ezinezkoa zaio kalkulatzeko, bereziki digitalean hasi




Michel Pollentier, 1978ko Tourrean Alpe D’Huez-en. Etapa hura irabazi eta maillot horia jantzi zuen belgikarrak, baina gerora deskalifikatu egingo zuten, dopinaren aurkako kontrolean azpijokoa aritzeagatik. Dopina, ziklismoak erabat alboratzerik ez duen gurutze-bidea, nahiz eta egoerak nabarmen egin duen hobera, UCiren pasaporte biologikoa moduko bitartekoei esker, Azanzaren iritziz.

“Argazkilari moduan ezinbestekoa da egoerari egokitzea, erreportari sena izan eta unean unekoa ahalik eta hoberen harrapatzea”

zenetik. “Etapa batzuetan 2.000 argazki ateratzera heldu naiz, ostean mordoia ezabatu arren”. Dioenez, duela urte batzuk hobe baloratua zegoen argazkilaritza. “Jendeak bat-batekotasuna nahi du orain, kalitatea baino gehiago. Antzekoa gertatzen da irakurtzeko ohiturarekin. Sua argitaletxean aritu zen lagun bati pasa diot esku artean dudana liburuaren

zirriborroa, iritzia emateko. Zer eta ez dit ba esan irakurtzeko gehiegi duela? Gehiegi? 101 urte dira baina!”

Bada beste gauza bat urteen poderioz okerrera egin duena, bere hitzetan: “Lasterketa 10:00etan hasten bada, bost minutu lehenagora arte ziklistak ez dira autobusetik jaisten. Urruntasun hori ez dut gustuko. Uler dezaket, baina... Batzuk beti daude argazkietarako prest e! Izaera kontua da”. Zentzu horretan, esan digu ez dela justua karre- ra bukatu ostean argazkiak atera edo zaleei sinatzerik nahi ez duen ziklista beroan larrutzea, litekeena delako egun txarra pasa eta porru eginda egotea. “Profesionalak dira eta gauza horiek zaindu behar dituzte, baina momentua aukeratzen jakin behar da”. Abila dugu horretan Iñaki Azanza, bere argazkiak lekuko. Orriotan bildu ditugu irudi gutxi batzuk –norbaitek esango digu gehitxo idatzi dugula–, baina erreportajearen Interneteko bertsioan dozena bat gehiago aurkituko duzue. ●



400 urteko lurrun makina eta aire girotu nafarrak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Gendulain (Nafarroa), 1553. Jeronimo Aiantz Beaumont jaio zen. Amaren aldetik Leringo kondearen familiakoa izaki, 14 urte zituela Felipe II.aren gortera eraman zuten paje modura, eta, gerora gizenduko zuen curriculum amaiezinarekin oinarri, formakuntza anitza jasotzen hasi zen bertan. Margolaria, asmatzailea, errejidorea, komendadorea, kosmografoa, militarra, abeslaria eta konpositorea izan zen Aiantz.

1587an, Espainiako erregeak meatzetako administratzaile nagusi izendatu zuen, eta erresumako 550 meatzetako arazo larrietakoa konpontzeari ekin zion: ur filtrazioak. Lurrin makinak erabiliko zituen ura tunel eta galerietatik kanpora ponpatzeko.

1598an Felipe II.a hil zenean, Aiantzek kargua galdu zuen konponbidea praktikara eramateke. Hala ere, 1606an errege berriak "asmakuntza pribilegioa" eman zion bere lurrin makinagatik, hau da, diseinatutako makina patentatu zuen. Ezin da esan Aiantzek lurrin makina asmatu zuenik, Antzinarotik ezaguna baitzen lurrina energia iturri bezala erabil zitekeela, baina bai lurrin makina "industrial" patentatzen lehena izan zela. Baita erabilera praktikoa ematen ere. Isilpean, Felipe II.aren garaian abandonatutako Sevillako Guadalcanal zilar meatzetan jarri zuen martxan lurrin makina. Gainera, sobera zegoen ura



Jerónimo Aiantzek (1544-1613) 48 asmakizun patentatu zituen, besteak beste, meatzetako baldintzak hobetzeko lurrin makina.

kanporatzeko hoditeria –eta termodinamikaren printzipioak– baliatu zituen meatzetan faltan zegoen aire freskoa sartzeko. Aire elurrez hoztu eta atzera galerietan sartzera lortu zuen. Bestela esanda, aire girotu sistema bat ere asmatu zuen.

1613an hil zen Jeronimo Aiantz. Mendea eta erditik gora joan zen Thomas Savery eta James Wattsek lurrin makina, Industria Iraultzaren oinarri eta pizgarri nagusietakoa, patentatu arte. Eta haien izango zen Aiantzek sekula jaso ez zuen aitortza eta lorria. ●



Yankiak herbeheretarrak ziren

XVII. mendean herbeheretar asko joan ziren Ipar Amerikara, nagusiki, Ingalaterra Berrira. Beste hizkuntza askotan bezala, Jan (Jon) oso izen arrunta zen nederlanderaz, eta kolono holandarrak izendatzeko *Janke* txikigarria erabiltzen hasi ziren inguru haietan. Sezesio Gerran, iparraldeko bandokoei hartu zuten ezizena, eta

egun estatubatuar guztiei esaten zaie yanki.

Baina badira hitzak jatorri zaharra goa duela diotenak ere. Zenbaitentzat, nahuatl hizkuntzako *yankuitl* hitzetik dator eta "jende berria" esan nahi du. Robert Graves idazle britainiarrak, aldiz, uste zuen *ianke* hitz komantxea zela eta "koldarrak" esan nahi zuela. ●



ARTXIBOA



Francis-en hilketa salatzeako manifestazioa Donostian, 1979ko ekainean.

TXEMA ORMAZABAL / ARGIA ARTXIBOA

'Francis' hil eta berrogeita hiru urtera

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zuk beranduxeago irakurriko baduzu ere, irakurle, ekainaren 10 batean idazten ari naiz lerrook. *Francis* trabesti homosexuala Antonio Caba poliziak tiroz hil eta berrogeita hiru urtera, justuki. LGTBifobiaren Kontrako Eguna den maiatzaren 17a, *Francisen* oroimena, eta sexu askapena aldarrikatu nahi duen ekainaren 28a batzeka lehen *Francisaldia* zikloa bere ekuatorera iritsi denean.

Franco hil osteko garai korapilatsuak. Gladys del Estalen hilketa astebete eskas lehenago, nuklearren kontrako borroka, Lemoiz, ETA (m), ETA (pm), gobernadore zibilen joan etorriak, tortura, bahiketak, "ordena ezartzeko" kaleak hartzen zituzten uniformedunak armak eskuetan... Hori zen -edo hori ere bazen, behintzat- 1979 hura. Testuinguru horretan hil zuten Vicente Vadillo *Francis*

Errenteriako Apolo dantzalekuan. Baina nola eman zuen albiste horren berri orduko *Zeruko Argia*-k? Aldizkariaren artxiboan topatutako zenbakian irakur daiteke, asteko gertakarien kronika eginenez eta garaiko testuinguruan kokatuz, nola azaltzen den: "Vicente Vadillo Santamaria, *Francis* izenarekin ezagutua zen trabestia, Errenterian lau egun zeramatzan polizi baten tiroz hil zen. '*Sin mediarriña, pelea o altercado alguno, al exhibir el policia nacional Antonio Caba Laguna el arma que portaba, disparándose y produciendo la muerte al indicado Vicente*' gertatu omen zen, dio Donostiako komisaldegiko bertsoiak. Askok azpimarratuz *Francis* emakumez jantzia zegoela (ez dakigu zergatik, agian emakumez jantzia ibiltzeak hilko zaituen adierazpen bat delako), leuntzen du arazoa komisaldegiko agiri ofizialak. (...) Armak eskuan

eta erabiltzeko posibilitatea dutenek, horrelako arriskuan uzten dute edonor".

ARTXIBOAK HISTORIA BERRESKURATZEKO ALTZOR

Iragana ezagutu beharrean gara oraina konprenitzeko. Horretan laguntzen digute artxibo historikoek. ARGIAK ere badu berea eta lanean ari da argazki artxiboa sailkatu, antolatu eta aurrerago nahi duenaren eskura jartzeko.

Barkamenarena beste baterako utzi dezakegu, baina ahaztu ez baita sekula egin behar. Eta ahanzturan ez erortzeko balio badu artxiboak txukundu eta denek kontsultatzeko moduan jartzeak, memoria ariketa interesgarria izango da. Garaiak asko aldatuko baitziren, baina botereak berdina izaten jarraitzen baitu; emakume bat bortxatzeko izan, trabesti bat hiltzeko edo torturatzeko. Ez ahaztu. ●

Bilbo Hiria

Lanaren ekonomia

Astelehena, 15:00etan

Ibaizabal Magazina

Osteguna, 12:20ean

Hala Bedi

Hizpidea

Asteartea, 8:30ean

Zebrabidea

Asteazkena, 16:00etan

Xorroxin

Karakola segi hola

Asteazkena, 19:00etan

Euskalerria irratia

Irrintzi plaza

Asteazkena, 15:00etan

KAPUTXINA JAN ETA EDAN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Etxeko behi bat oso gaixo izan dugu duela hilatebe pasatxo. Ezin buelta eman eta larretik ukuilura sartu genuen, hor hobeto zaintzeko itxaropenarekin. Segituan konturatu ginen ohiko jateak ez zituela nahi, batez ere belar ondua. Ganbara bete eta berak iskin egiten. Hobe beharrez denetik inguratu eta probatzeko eman genion lastoa, baba (*Vicia fava*), alpapa (*Medicago sativa*), pagotxa (*Trifolium incarnatum*), erresiloia (*Triticum aestivum*) eta abar. Mokadutxo bat hartu eta utzi; denekin gauza bera egiten zuen. Hausnarra ere ia galdu zuenean ukuilu inguruko eta baratzeako belarrak eskaintzen hasi ginen: txikori-belarra (*Taraxacum officinale*), gardu (*Cirsium spp.* eta *Sonchus spp.*), zerba (*Beta vulgaris*) eta kaputxina (*Tropaeolum majus*). Zein baino zein mikatzagoa. Mikaztasun horregan genuen sinesmena iltzatuta; hausnarra mugituko zion itxaropena. Baita mugitu ere. Horietaz gain kirtangorriaren edo aziendaren pasmo-belarraren (*Ajuga reptans*) ura ere eman genion pasmorik edo gaiztoturik izanez gero garbitzeko. Susperraldian laguntzeko amonak egingako patxaran (*Prunus spinosa*) dzangadzangateko batzuk ere izan zituen. Guskukoenak zerba eta kaputxina zituen, eta azken horrekin amorratua zen.



Kaputxina loreak eta hostoak.

Izan ere, zer da ona ahoan kaputxina! Loreak eta hostoak jangarriak dira. Hosto bereziak ditu borobilak, "orbikularra" esaten zaio, eta txortena hostoaren alde batean izan beharrenean erdi-erdian du, onil itxura emanez. Hostoak kolore urdinxka du eta leun-leuna da, barazki finenen parekoa, ziazerba (*Spinacia oleracea*), shisoa (*Perilla frutescens*) eta

mizuna (*Brassica rapa var. Nipposinica*) bezala, adibidez.

Loreak dira gustagarrienak, deskribatzen zaila den zaporea dute; niri Sichuango piper alearen usain eta dasta konplexuak (*Zanthoxylum piperitum*) dakarzit gogora. Piper punttua badu, baina inolaz ere ez piper beroarena. Bizia da ozpin punttua ere baduelako... Aho sabaian zakarregia bazaizu, lorearen erdiko aldea kendu eta petaloak soilik erabili, postre eta entsalada ederki jantziko dizkizute.

Osasungintzan teak eta tinduak egiteko eta digestio arazoetarako erabiltzen da. Jateko entsaladetan ikusgarria da; ikusgarria, baita ahoaren kitzikagarria ere. Freskoan, izan ere, ezin bitxiagoa da, batez ere inoiz edo behin soilik dastatu izan baduzu. Hostoak arrozez (*Oryza sativa*) eta barazkiz beteta ere ez dira txarrak, edozertarako bilkari bezala ere ez. Zopatan ere maiz erabiltzen da, zopa bero pikanteak, hotzak... Pizzak, arrautzopilak, emultsioak, gatza, loreen kaparrak, hautsa, pestoa, saltsa beroak, ozpinak, marmeladak, jeleak, gurina... Zer ezin da egin kaputxinarekin! Postretan sartzeko ausardia baduzu, inor gutxik egiten dituen gozoen egileen mundu urrian sartuko zara. ●

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!

“Nekazari guztiak ekologikora pasatzera animatzen ditut; onura asko ditu eta etorkizun handiko apustua da.”

—
IBON OLLO
Ardogilea, IRUNBERRI

CPAEN
NNPEK
ESKOLAK

UNIVERSIDAD DE NAVARRA
eko-logikoak
para vivir mejor

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural

cpaen.org
navarraecologica.org

LARREA ETXALDEA

BASERRIKO PATATA FRIJITU POLTSAK
EXISTITZEN DIRA, URRUÑAKOAK

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Mementuan laborari gutxi gelditzen gara Urruña inguruan, Iparraldean gehienak barnekaldean dira-eta". Beñat Exposito ekoizle urruñarraren hitzak dira, Lapurdiko kostaldeko egoeraz hizketan. Etxalde geroz eta gutxiago eta urbanizatutako zonalde geroz eta gehiago dagoen inguru horretan, baserritik bizitzeko apustuari eutsi diote Larrean, eta berak, anaiak eta aitak horixe dute bizibide. Alde batetik, behi esnea ekoizten dute paketetan gordinen saltzeko, eta, bestetik, patata, gerora eraldatu eta txips moduan saltzen dutena. "Duela 15 bat urte hasi ginen txips-en ekoizpenarekin, eta urteotan etxeko jarduera gehien horrek aldatu du", azaldu du.

LANDA BIZITZARI EUTSI NAHI

Gaztetatik oso argi zuen Expositok gurasoen erreleboa hartuko zuela, horregatik egin zituen nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako ikasketak Pauen (Okzitania). Etxean anaia gaztearentzako adinako lanik izanen ez zela uste zuten hasieran, baina ekoizpenean eta merkaturatze moduan egindako aldaketekin, berarentzako toki bat ere lortu dute Larrean. "Salmenta zuzenarekin hasi gara marjina hobetzeko. Ideia ez da bolumena handitzea, modu hobean saldu ahal izatea baizik", dio ekoizleak.

Zuzeneko salmentaz gain, patata ekoizpenarena izan da gazteak abiatu duen berrikuntza nagusietako bat. "Duela 15 urte, hasi ginenean, urtean 25.000 patata frijitu pakete saltzen genituen; iaz, 100.000 izan ziren". 100 gramoko poltsetan saltzen dituzte txips-ak, hurbileko dendetan. Baina, nondik nora bururatu zitzaion Urruñako familiari patata



frijituak ekoizten hastea? Horrela azaldu du hasiera Expositok: "Lehenago esnea eta barazkiak ekoizten genituen, baina uda partean patata asko egiten genuen, eta Donibanen txips patatak egiten zituena denda oso ezagun bati saltzen genizkion". Denda hartako jabea erretiroa hartzekotan zela jakin zutenean, aukera berri bat ikusi zuten parez pare.

PROZESU OSOA ETXALDEAN

Dendako jabearekin tratua egin eta berak zerabiltzan makina eta errezeta jaso zituzten. "Guk ez genuen ezer asmatu, hasterako bagenituen bezeroak", dio Expositok. Patata ereitetik poltsetan sartzeraino, bide guztia etxaldean bertan egiten dute, eskuz: landatu, jaso, zuritu, moztu, frijitu... "Patata fin-fin moztzen



duen makina bat dugu, eta frijigailu handi bat ere bai". Ekilore olioia Bordeleko etxalde txiki bati erosi izan dio hastapenetik, baina egungo krisiak eragindako olio eskasia dela-eta, beste bide batzuk bilatu behar izan ditu azken aldian.

Patata industrialak ez bezala, bi edo hiru asteko denbora tartean kontsumitu behar dira Larreakoak, ez baitaramate inolako kontserbatzailerik. "Produktu freskoekin bezala egiten dugu lan patata frijituekin: urte guztian ekoizten dugu, eta ez, industrian bezala, dena kolpe handi batean". Etxeko esne gordina eta patatak inguruko herrietan banatzeko egunero ateratzen da autoarekin Exposito: Baiona, Biarritz, Angelu, Senpere, Azkaine, Hendaia... "Gehienez, 50 kilometroko tartean saltzen dugu". ●

“ ”

Epaitegiak eta komisaldegia dira nik umore gehien egiten dudan tokiak

Ane Lindane

Ane Lindanek umore ikuskizun berezia egingo du Bilborocken ekainaren 16an, *Despotorre*. Raquel Torresek batera arituko da eta euren asmoa Euskal Herriko umore feminista maila bat gorago eramatea da, lokala jendez beteta. Aukera baliatu dugu umorearen tenperatura hartzeko.

 AITOR ASPURU

Ikuskizun berezia prestatzen ari zarete orain, zein?

Raquel Torresek eta biok duela urtebete ezagutu genuen elkar, eta *Despotorre* izeneko ikuskizuna egiten hasi ginen. Berrogeita bost minutuko bakarrizketa bana egiten dugu eta lantzen ditugun gaiak antzekoak dira, norberak bere bizipenetatik abiatuta. Horrez gain, Euskal Herriko lehen *open mic*-ak antolatu ditugu. Ibilbide hori egin ostean zerbait handia egitea pentsatu dugu eta Bilborocken antolatu dugu ikuskizuna. Gu biok arituko gara eta baita beste bi umoregile eta *pole dance* ikuskizuna ere, tartetean.

Antzeko gaiak lantzen dituzuela aipatu duzu, zeintzuk dira?

Adin bereko bi emakume gara eta antzeko bizipenak izan ditugu. Horregatik fe-

minismotik hitz egiten dugu batez ere, hori da amankomunean duguna. Gainera, politika ere jorratzen dugu, gehienbat nik, euskal herritarra naizelako eta hurbilago izan dudalako. Izan ere, Raquel Extremadurakoa da. Oro har, bakoitzak dauka bere estiloa, baina nahiko punkiak gara umorea egitean, nahiz eta Raquelek dioen bera txonia dela. Ez dugu taburik edozein gai lantzeko, sexua, esaterako.

Lehen aipatu duzu *open mic* edo mikrofono irekiko saioak egiten dituzuela. Euskal Herrian ez da orain arte horrelakorik egon eta zerbait sortzen ari zarete?

Ez dakit lehenengoak izan garen. Bizkaian ziur baietz eta EAEn uste dut ere horrela izan dela. Orain gehiago daude. *Open mic* batean egiten da *jam session*-etan egiten

dena, baina umorea jorratuz musikaren orde. Guk antolatzen dugunez guk aurkezten dugu eta deitzen ditugu parte hartzaileak. Lehenik eta behin emakumezkoak, haiek lehenesten baititugu. Hamar minutuko tarte dute bakarrizketak probatzeko. Berez, bakarrizketa luzea egin baino lehen, jakin behar duzu zein txiste diren onak eta zeintzuk ez. Horretarako, ikusleen aurrean egin behar duzu proba. *Open mic*-ak oso beharrezkoak dira umoregileontzat testua probatzeko. Gure kasuan, bost lagun igotzen dira oholtzara eta gero horri esker hautatu dezakete onena edo hobekien funtzionatzen duena bakarrizketa luzean erabiltzeko.

Bakarrizketa baten atzean lan handia dago etxean idazten?

Bai, horrela da. Orduak igarotzen ditugu



idazten eta gero jende aurrean antzeztu behar dira. Oso gogorra da ikustea ez dutela barrerik egiten eta horregatik garrantzitsua da ikusleria ere ezagutzea. Esaterako, txiste batzuk Bizkaian edo Nafarroan oso arrakastatsuak dira eta Gipuzkoan ez dute barrerik eragiten. Azkenaldian hamaika lekutan egon naizenez badakit testu batzuek ez dutela ondo funtzionatuko zenbait jenderen aurrean. Lana da jakitea txiste batzuek harrera ona non eta noiz izango duten eta non ez. Lanaren parte gogorrena, agian.

Euskal Herrian aitzindaria izanik, erreferenteak dituzu?

Nire erreferenteak gizonetzkoak dira. Hori ez da niretzat arazoa. Betidanik egon dira emakumezko umoregileak eta orain ikusten dira gehiago, agertzen diren horiekiko ikusten dut hurbilago nire burua, baina orain arte ez nituen ezagutzen. Oso gogoko dut Miguel Noguera eta txikitik Les Luthiersekiko miresmena sentitzen nuen. Nire ibilbidea gaztetxeetan hasi zen, batzuetan oso emaitza txarrekin. Ondoren, Euskadi Irratiko bakarriketa jaialdi batera aurkeztu nintzen eta han ezagutu nuen Raquel. Antzezlea da bera eta Madrilen ibili da *open mic*-etan. Ni noizbait egon naiz, baina berak gertutik ezagutzen eta, adibidez, Madril en aritzen den umore talde feminista ospetsu batek nola funtzionatzen duen badaki. Horregatik, hain zuzen, batu ginean erabaki genuen ez genuela hori egin nahi, joera matxista batzuk errepikatzen baitira printzipioz eredu ez matxistak diren horietan. Guk antolatzen dugu inor esplotatu gabe eta ez dugu inoiz itxaron inoren deia.

Patriarkatuaren eragina nabaritzen da emakume batek mikrofonoa hartzen duenean?

Raquelek eta biok esaten dugu, zentzu horretan, Euskal Herria paradisia dela. Alde batetik, ez zegoelako aurretik eta jendeak ez zuelako aurreiritzirik. Bestetik, feminismoaren alor batzuk hobeto daude hemen beste toki batzuekin alderatuta, nahiz eta asko dugun hobetzeko. Burbuila horretan oso eroso sentitzen naiz, eta guk antolatzen ditugun saioetan ere bai. Horri gehitu behar zaio deitzen gaituztenean maiz etxean gaudela, gaztetxeetan, adibidez. Dena den, Raquelek Madrilera jotzen duenean *open mic*-en batean parte hartzera, beti esaten du oraindik ere izugarria dela matxismoa.

Nik gutxitan sentitu dut. Adibidez, *El machismo estriñe* (Matxismoak idortzen du) bakarriketa egin nuen El Jardín secreto tabernan eta hor nabaritu nuen patriarkatuaren presentzia. Oso gaizki pasatu nuen, inork ez zuen barre egiten eta sumatu nuen emakume batek kaka egiteari buruz hitz egitea oso bortitza zela publikoarentzat. Gero, gainera, jakin nuen taberna horretan neska bat esplotatzen zutela. Hala ere, hori nire lehenengo saioetan izan zen, itxialdiaren ostean, eta garai horretan nahiko kamikazea nintzen. Askotan jendea zur eta lur geratzen zen. Orain badakit zer egin dezakedan eta zer ez. Aintzat hartu behar da askorentzat arrotza dela bakarriketaren kontzeptua. Adibidez, Santutxuko Jaietan egitea arraroa izan zen. Edonola ere, oro har, onartzen da emakumezkoek umorea egitea eta ez dutenek onartzen uste dut ez dutela esaten lotsatzeko modukoa delako. Hori bai, sare sozialetan denetarik esaten didate.

“ ”

Txiste batzuk Bizkaian edo Nafarroan oso arrakastatsuak dira eta Gipuzkoan ez dute barrerik eragiten

Hor nabaritzen duzu gehiago matxismoa edota misoginia?

Bai, gainera, nik asko maite dut gorroto nauen jendea. Zoragarriak dira: matxismoa, misoginia, euskalofobia, euskarafobia... Dena batera. Ez dago modurik jakiteko nor den sare sozialetan idazten ari dena eta ez dakit zehazki zergatik heldzen naizen faxistengana. Esaten dute algoritmoak badakiela zein den gutxi gorabehera zure ideologia eta zerk haserretzen zaituen, eta hori erakusten dizu elkarrekintza eragiteko, erantzuten duzulako. Ez dakit horregatik den, baina azken boladan faxista andana ari da iruzkinak idazten, batzuk oso dibertigarriak dira eta barre egiten dut. Gogoko dut ni iraintzea eta batzuetan sakelakoa pizten dut bakarrik euren irainak irakurtzeko. Ez naiz ikaritzen eta ez dut serio hartzen, baina batzuen iruzkinak izugarriak dira. Esaterako, berriki batek esan zidan ni

bezalako jendeagatik erailtzen dituztela emakumeak. Orduan pentsatu nuen: “Puf, a zer nolako jendea dagoen hortik”. Ez dit beldurrik sortzen, baina adierazgarria da. Beste batzuk dibertigarriagoak dira. Korrikari buruzko euskarazko bakarriketa batean beste batek idatzi zidan ezinezkoa zela ni ulertzea eta zakila ateratzeko ahotik. “Zakila ahotik ateratzea? Hori inoiz ez!” erantzun nion. Egia esanda, irain eta mehatxu horiek ez dute eremu birtuala inoiz zeharkatu, Kabareten salbu –hor egiten ditugu *open mic*-ak-. Kartelaren gainean idatzi zidaten bi pertsonak: “Hil zaitze hirugarren dosiarekin, putakumea”. Txertoen kontrakoak ziren. Bikaina izan zen, nire lehenengo mehatxua zuzenean.

Komediari esker bizitzeko aukera dago Euskal Herrian?

Ez dakit, nahi duzun bizitzaren arabera dela uste dut. Printzipioz, ez dut uste, baina zer da komedia? Gidoiak idaztea? Ikuskizunak? Gauza asko dira. Dena den, momentuz, nik Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari esker bizirauten dut, bestela ez nukeen bitarteko nahikorik izango. Gero eta lan gehiago ateratzen zait komediarekin lotura duena, baina ez da zehazki komedia: gidoilari-lanak, kolaborazioak, mahai inguruetan parte hartzea, antzezle lanak... Proposamen ugari dira. Horrez gain, gure ikuskizunean guk egiten dugu dena: kartelak, eskuorriak, babesleak lortu kartelak ordaintzeko, Bilborock alokatu, artistak kontratatu, aholkularitza eskatu dirua kudeatzeko... Ardura asko dira eta gure gain geratzen dira guztiak. Ez dut uste Ignatius Farayk horrela egiten duenik. Berak txisteak kontatzen ditu soilik.

Lokatzean sartzea proposatuko dizut. Gehienetan gizonetzkoek lapurtzen diete emakumezkoek ikusgarritasuna, baina batzuetan emakumeak dira horren errudunak zuen kasuan?

Lehen aipatu dizut gainetik. Badaude komedia feminista edo emakumezkoen komedia egiten duten taldeak, baina euren lan baldintzak esplotazio hutsa dira. Hor ez dago sororitaterik, ez feminismoa, neska gazteak zuzutzeko aitzakia moduan soilik baliatzen dute feminismoa. Neskei gutxi ordaintzen zaie edo zuzenean ez zaie ordaintzen. Hau da, eremu matxistetan gertatzen dena errepikatzen da. Gero badaude bestelako kasuak, zeinetan umorearen munduan ibilbiderik ez duten pertsonak umorean sartzen diren



trena abian dagoelako, soilik ikusgarritasun handia dutelako. Tren hori guk jarri dugu martxan nekez eta sufritzen. Lan handia egin behar izan dugu gure izenak zabaltzeko eta denetarik egin dugu horretarako. Adibidez, herri bateko jaietara joan 15:00etan bakarrikzeta egiteko eta umez gainezka topatu. Ea nola egiten dituzun txantxak zakilak jateari buruz!

Hori guztia bizi izan ostean, ikusten dugu inoiz komedia egin ez duten pertsonak sartzen direla, eta beste eremu batzuetan ikusgarritasuna izan dutenez leku hori okupatzen dute. Orduan galdetzen diozu zure buruari: "Non dago sororitate? Hau ere feminismoaren izenean egiten duzu?". Gertatzen da. Edonola ere, dena da oso berria eta agian kode batzuen faltan gaude oraindik. Adibidez, egiten ari zaren zerbait beste emakume batentzat kaltegarria izan daitekeela ulertzea. Beharbada ez dakite, eta ezjakintasuna eta elkartasun gabezia dago, ez dakitelako zein emakume ari diren komedia egiten. Ez dakizu, baina izena duzunez, sartzen zara komedian eta batbatean leku guztietatik deitzen dizute. Are gehiago, agian ez duzu ondo egiten

edo badaude neskak zu baino mila bider hobeto egiten dutenak. Azkenean, hori kaltegarria izan daiteke umorea egiten dugunontzat eta emakumezkoek egiten duten umorearentzat, ziurrenik ez dutelako ondo egiten, esperientzia faltagatik, ez gaitasuna ez dutelako.

“ ”

***Gorroto nauen
jendea zoragarria da:
matxismoa, misoginia,
euskarafobia...
Dena batera***

Zure umorearen oinarrietako bat da politika, zure bizitzaren zati handia delako. Aipatuko diguzu nola irabazi zenion epaiketa bat Ertzaintzari? [Barreak] Ez nekien hori aterako zenik! Ea, erantzun hau patxadaz hartuko dut. Izan ere, berriki beste epaiketa bat izan

dut eta, bestalde, Mozal Legea erabili nahi dute nire aurka. Egia esanda, Ertzaintzari irabazi nion epaiketa ez da oso barregarria. Berez, epailearen meritua izan zen, tematu baitzen ostikoa eman zidan ertzaina identifikatzen. Dena den, nik umore gehien egiten dudan tokiak dira epai-tegiak eta komisaldegiak. Ertzainekin umore oso ona eta barre asko egiten dut. Duela gutxi ni bizi naizen eraikinaren atarian sartu ziren ertzain batzuk etxe baten jabearekin, mutil batzuek etxea okupatu zutelako. Une horretan mutilak ez zeuden barruan eta polizia eta jabea saiatu ziren etxebizitzan sartzen. Justu bakarrikzeta entsegua erdian nengoen eta orduan atera nintzen hori ekiditeko. Ataria ertzainez bete zen, erraldoiak, eta ni atera nintzen etxeko arropa jantzita, barruko arropa gabe. Ertzainek harrapatu ninduten, titiak atera zitzaizkidan... Badirudi beti titiak bistan izan behar ditudala. Lis-karraren erdian polizia batek esan zidan: "Señorita, tranquilícese" eta nik erantzun nion: "Ez duzu entzun zer ateratzen den nire ahotik? Argi dago ni ez naizela *señorita*!". Horren ostean esan zidaten Mozal Legea baliatuko dutela nire aurka. ●



LIBURUA

Hegan?



KRAKOVIA GOIZALDE LANDABASO- ETCHEVERRY

EREIN, 2021

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Gogoz heldu diot liburuari, desberdina izango delako sentipenarekin. Jaione Dagdrommerren portada hegaldun eta urbanoa begiratu dut. Zeruak hartzen du zatirik handiena eta txori asko ageri dira. Hegan libre. Libre. Portadako irudiak hasierako orrietatik irakurriko dugunarekin egingo du kontrastea; izan ere, protagonista ospitalean dago: itxita, ezlekuan, kanpokoarekin kontaktu gabe ia eta shock egoeran.

Bi mundu topatuko ditugu, bi espazio eta, beraz, bi denbora: protagonistaren barne munduan gertatzen dena alde batetik, barne bakarrizketa forman irakurtzen duguna: haluzinazioak, ametsak, irudimena, bere buruarekin dituen elkarrizketak. Eta denbora motel pasatzen delako sentsazio itogarria. Beste alde batetik kanpoko mundua agertzen zaigu: pasarte deskribatzaileagoak dira eta ospitaleko beste pazienteak, medikuak, erizainak, agertzen dira, dinamikak eta


arauak kontatzen dizkigu. Galdeketak, sendagaiak... betiere protagonistaren begiradatik, baina erritmo biziagoan gertatzen direnak.

Ezin dut, ordea, estiloaz hitz egin estiloez ez bada: kapitulu batzuk denborak markatutakoak dira, letra larri batzuekin idatziak, egoeraren gogorra eta desesperazioa agertzen dutenak. Beste batzuk elkarrizketa forman daude, protagonistak jasaten dituen galdeketak bortitzak direla agerian utziz. Galdera erretorikoz josita dago liburua, protagonistak egoerari buruz eta bizitzari buruz bere buruari egindako erantzunik ez duten galderez josia. Estilo horiek guztiak ezinegon puntu bat sortzen dute –seguruenik protagonistak berak bizi duen egoeraren isla–. Ondo lortu du idazleak sentsazioa ekartzea.

Estiloan nabarmentzeko beste zerbait iruditzen zait erreferentzia kultural ugari dagoela. Unibertso bat osatzen dute eta

antzezlan batean bezala agertzen direla iruditzen zait. Sartu, batzuetan egoera absurdo bat eszenifikatu eta eszenatik aterako balira bezala. Idazleak, ipuingileak, kazetariak, zinemagileak, aktoreak, politikariak, abeslariak, kantuak, poetak, liburuetako protagonistak, musikariak, pintoreak, bidaiariak, liburuak, dantzariak, pelikulak aipatzen dira. Hauek adibide batzuk: Penélope, Ulises, Marilyn, Roch Liechtenstein, Marx anaiak, Thierry Malandain, Nelly Bly, Alexandre Dumas, The Swell Season, Anna Karenina, Mikel Laboa, Jara, Star Wars, Stephen Hawking, Edgar Allan Poe, Mary Oliver, Jasone Osoro, Pudre Lord, Steve Moqueen, Drácula, Jose Emilio Pacheco, Xabier Lete, Fidel Castro, Maria Callas....

Liburuan aipatzen den The Swell Season taldea entzuten idatzi dut kritika, unibertso kultural berri baten atea ireki baitit Goizalde Landabasok. Eskerrik asko. ●



MUSIKA

Tonu grisak

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ez da oso ezaguna *Madama Butterfly* operan kontatzen den istorioa Euskal Herriarekin erabat maiteminduta zegoen Pierre Loti idazlearen obra batean oinarrituta dagoela. *Madame Chrysanthème* da obra hori. Antzeko argumentua du, nahiz eta Lotiren originalak amaiera zoriontsua duen eta, aldiz, Pucciniren kasuan istorioak bira guztiz tragikoa ematen duen.

Ez da oso ezaguna, halaber, publikoaren lan gogokoenetako bat izan arren, haren estreinaldia ez zela oso zorionekoa izan. 1904ko otsailaren 17ko eszenaratzea, Teatro alla Scala antzokian, porrota izan zen. Horrek Puccini obra kentzera behartu zuen, eta hainbat berrikuspen egin behar izan zizkion. 1906ko abenduaren 28an Parisen estreinatutakoa behin betikotzat jo daiteke.

Bestalde, bide traketsa izan zuen lan honen burutzeak. *Madama Butterfly*ren konposizioak iraun zuen hiru urteetan gorabeherak izan ziren. 1903ko otsailaren 25ean maisuaren jabetzakoa zen Italiako lehen automobiletako batekin izandako autostripuagatik izan ez balitz, denbora gutxiago beharko zukeen. Ez zuten lagundu bere emaztea Elvirarekin izandako arazoek, ezta Giuseppe Giacosa eta Luigi Illica libretistekin eta Giulio Ricordi editorearekin izandako desadostasunek ere. Hala eta guztiz ere, obra hau mugarrria da XX. mendeko opera-errepertorioan.

OLBEk Euskalduna jauregian eskainitako bertsioa sinplea izan zen, hitzaren zentzurik onenean, konplikazio eszenikorik gabea. Eta garrantzitsuenari dagokionez, ahotsa alegia, esan geneza-

ke obra zuzen konpondu zela, baina ez zen distirarik izan.

Sergio Escobar tenorea ez zuen ziu-rrenik bere egunik onena izan, edo agian Pinkertonen papera ez da bere instrumentuarekin ondoen egokitzen dena. Baina, egia esan, ez zuen publikoa kontentzitu. Litekeena da, halaber, orkestraren gehiegizko bolumenak abeslaria ahotsa forzatzera behartzea, eta, horren ondorioz, tenorea ohi baino emisio latzagoa egitea. Maria Agresta soprano italiarrari dagokionez, bere ahots indartsu eta bolumenezkoa erakusteko aukera izan zuen eta edertasun handiko uneak izan zituen, *Un bel di vedremo* bigarren ekitaldiko aria kasu. Hala eta guztiz ere, orkestra-batutaren fintasun faltak edo antzezpenaren tonu gris samarrak, agian, eragina izan zuten, eta Agrestak ez zuen lortu espero zen distira. ●



OLBE-k antolatutako Pucciniren *Madama Butterfly* opera. Bilbao Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Henrik Nánási. Bilbao Operaren Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Bakarlariak:** Maria Agresta (sopranoa), Sergio Escobar (tenorea), Carmen Artaza (mezzoa), Damián del Castillo (baritonoa), Jorge Rodríguez-Norton (tenorea). **Eszena zuzendaria:** Stefano Monti. **Lekua:** Euskalduna Jauregia. **Data:** maiatzaren 21a.



Vulk gara

✍ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📷 RUBÉN ELETXIGERRA (@WEEDIANAUT)

Orain hiru urte eskaini zuen azkenengoz Vulk taldeak kontzertu bat Bilbon –azaroko emanaldi berezia kenduta–. Hiru urte non mundua eta berau habitatzen dugunok izugarri aldatu garen. Denbora honetan bilbotar laukoteak disko berria kaleratu du, *Vulk ez da* (Montgri, 2022). Beraien buruaren ukapena ez da soilik izenburura mugatu, etiketen esklabotzari barre egin baitiote taldeak inoiz grabatu duen diskorik aberatsenean. Berau aurkezteko emanaldi ugari eskaini dute eta azkenengo biak Bilbon izan dira, bata bestearen jarraian, etxean eta etxekoekin.

Ausart igo ziren agertokira, dotore jantzita, baina borrokarako prest. Trajearen azpian boxeorako botak antzeman zitezkeen. *Hamar lagun baten kontra* abestiarekin ireki zuten emanaldia. Izugarri ondo koipeztatutako makina da Vulk, oldarkorra eta amorruez betea. Hori erakutsi zuten lehenengo segundotik: tal-

dekide bakoitza berean bikain egon zen. Laurak elkarrekin garaiezin agertu ziren.

Oskolaren azpian hauskorrek garelara ezin ahaztu eta hori ere transmititzeko gai da taldea. Hortzak estututa barre egitea erasokor agertzeko beste modu bat da. Modu arrisksuan bizi dira, oreka mantendu nahian, heriotzazko sarean harapatuta ez geratzeko. Bigarren abestian –*Laguna*– “bizitzak engainatu gaitu

eta gurpilean sartu” garelara aitortu zuten, heriotzaren aurkako borroka aurretik galdu dugula onartuz. Etsaia beti orpoan dugula ohartarazi ziguten izen bereko abestian, hau ere lan berrikoa. Azken diskotik kanpoko bi abesti baino ez zituzten jo: *Urak errenditu* eta *Behiaren Begirada*.

Emanaldiak aurrera egin ahala begirada konplizeak ezkutuan bidalitako bihotz beltzekin nahasi ziren. Izerdiak giroa busti zuen eta tarteka areto osora zabaldu ziren suteak piztu ziren. Momen-

VULK

NOIZ: ekainak 3


NON: Kutxa Beltza (Bilbo)

tu batean Lizardi igo zen taulara *Amodioa kartzelan* abestiarekin laguntzera. Saxoa eskuan baino, hau besarkatuta igo zen, hauskortasun momentuetan musika babesleku bakarra dela esan nahiko balu bezala. Errituaren puntu gorena *Militantzia sutsua* abestiarekin heldu zen, zeinari esker heriotzaren eta berpiztearen, suntsiketaren eta berreraikuntzaren lekuko izan ginen.

Orain hiru urte, guztiz jakitun ez baziren ere, bidaia bati ekin zioten Vulk-ekoek. Bidean mota guztietako erronka eta tentazioei aurre egin behar izan die, baita gauza asko galdu ere. Itzultzeko ordua heldu zaie, kontuak ateratzekoa. Garaipen eta porrotak dakartzate poltsikoetan eta taula gainean jarri dituzte Bilbon eskainitako bi kontzertu hauetan. Zintzotasunez onartu dute lehen borroka, garrantzitsuena, gure buruaren aurka egiten duguna dela, gu geu garelara gure antagonista nagusiak. ●



Hitz gezidunak

KARIAZ LETRA IZENA	PERTSONAIREN ABIZENA TORIOAREN IKURRA	ERDIXKA	 DANI BLANCO		ESPARRU PERTSONAIREN IZENA	ZAINDU, BABESTU ZABUKA	GIPUZKOAKO UDALERRIA BIZKAIKO HERRIA
U HOLDE-UR OSMIOA					GAR TENPERATU- RA ALTU		
	PALADIOA MAITAGARRI		ZIBURUKO RAP TALDEA JANTZI MOTA (PL)	ILOBASO BASOKO EGURGINTZA		... ITURRIAGA, BERTSOLARIA NOIZEAN BEHIN	
AZKENGABE BEREZKO ARGIA DUEN ASTRO		ARAN KOIPEAK, GANTZAK				RADONAREN IKURRA NEKEZ	
LITERATU- RA LANEN IDAZLE	HITZARMEN, AKORDIO OINEZ MUGITU		ELKARREN KONTRA BULTZAKA LEKUA		ALFONBRA EMAGALDUA, LILITXA		ESKUOIHALA, TRAPUA
BEGIRALDI, BEGI ITXI- IREKI LOHI, LIKITS						GABEZIA ARDI HITZ- ELKARKETAN	
		BAITAN GAREN HAUEK					FOSFORO- AREN IKURRA IHI
LOTAN ZETA, EHUN- GINTZAKO GAIA	AGINTZERA BEHARTU BAT ERROMATA- RRA				AXOLA, KEZKA		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	2		8				
9			4	3	5	8	7
			2	9	1	3	6
				8	5	4	7
	8			4			3
5	9					2	
	8		5	1			6
1		2	3	4		7	8
3		5			6	1	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Ume bilakatu.
2. Haserrea adierazten duen keinu.
3. Ezaldi.
4. Idazteko erabiltzen den likido koloreduna.
5. Denbora bitarte aski laburrak.

EBAZPENAK

1. UMETU
2. MUZIN
3. EZUNE
4. TINTA
5. UNEAK

6	2	1	9	7	8	5	4	3
4	5	8	7	6	1	2	3	9
1	6	2	3	4	9	7	8	5
7	8	5	1	2	4	3	6	9
5	9	4	7	6	3	2	1	8
2	7	8	1	5	4	6	9	3
6	3	1	9	2	8	5	4	7
8	5	7	2	9	1	3	6	4
9	1	6	4	3	5	8	7	2
4	2	3	6	8	7	9	5	1

V	I	S	L	N	V	V	U	R	I	R	I	Z
I	Z	V	V	T	N	I	G	V	O	L		
P		V	N	T	U	K	V	N	I	K	I	Z
V	Z	E	E	L	P	E	K	I	G	E	B	
Z	I	P	L	V	O	T	V	R	E	T	L	I
	N	V	K	A	N	S	O	R	U	T	I	
R	N	N	V	R	R	O	R	V	V	Z	I	
I	I	V	U	N	B	E	G	V	I	G	V	A
V	O	B	A	I	L	I	B	M	D	P	S	O
V	V	G	S					R	V	H	U	
E	V	N	E	K	N			E	X	L	V	H
Z	J	H						T	K			

Beñat Jusue

GAZTE EUSKALTZALEA



TUDELAN TUTERA

“Tuterako gazte bat naiz, Iruñean bizi dena eta Tuterara bueltatuko dena. Tuteran jaio izanak euskaltzaleatasuna beste modu batean ulertzea dakar. Izan zitekeen Oiartzunen jaio eta modu berdinean euskaltzale izatea. Baina nire kasuan, Tuteran jaio eta bizi izanak, eta militatzen Tuteran hasi izanak, moldatu du nire euskaltzaleatasuna. Batez ere, Tuteran ez delako existitzen, *Tudela* da existitzen dena. Guk, euskararen inguruko Tuteran bat sortu nahi dugu, beste balio batzuen baitan eta beste modu batean ulertuta. Eta horrek eragiten du”.

“Euskaraz bizitzea momentu oro harresi baten kontra jotzea da”

Euskararen borrokara lotu nahi den belaunaldi berriko kide da Beñat Jusue (Tutera, 1998). Orain aste batzuk Donostian egin zen Euskara Aurrera! manifestazioko deitzaileetako bat izan zen Gazte Euskaltzaleen Sareko partaide ere bada. Pozik mintzo da mobilizazio hartaz, “bazterrak nahastu” eta “euskararen aldeko borroka ulertzeko perspektiba zabaldu” zituelakoan. Perspektiba zabalago horrekin ari da azken urteetan Tuteran martxan jarri diren egitasmo ezberdin batzuen jiran ere, euskara eremu ezberdinetan eragiteko tresnatzat hartuta.

 ANDER PEREZ  JOSU SANTESTEBAN

Azkenaldian, ugaritu egin dira euskararen aldeko tresnak Tuteran eta Erriberan.

Tresnak baditugu, baina izugarritzko zapalkuntza dugu. Eta ez gaude bakarrik juridikoki zapalduta, baita kulturalki ere: badago euskararen kontrako jarrera oso oldarkor bat, urtez urte sortzen joan dena. Horren aurrean badugu nondik egin: Agerraldia eta Errigora sekulako tresnak dira, Hordago! herri ekimena ere bai, eta euskalgintzak Erriberari begira egiten duen lana ere bai. Baina Tuteran euskalduntzeko tresnarik eraginkorra Tuterako euskaltzaleak dira. Eta ari dira, bakoitza bere esparrutik.

Tresna horietan denetan, antzematen da aldarrikapenaren eremutik alderdi praktikora jotzeko ahalegin bat.

Bai. Gizarte euskalduna sortu nahi dugu, baina euskaratik sortua. Union Tuteran, Agerraldia, Hordago!, gazte mugimenduak... elementu bat dute denek komunean: euskara jartzen dute zentroan, eta haren inguruan

sortzen dute, izan kirolaren eremuan, elikadura burujabetzan, zonifikazioa gainditzeko dinamikan edota gazteak politizatze eta prekaritate gainditzeko borrokan. Baina beti ere ulertuta euskara badela hor funtsezko tresna bat, eta euskaratik egin behar dela.

Eta ba al dago euskara abertzaletasunarekin ez lotzeko joera kontzienterik?

Tuterako abertzaleak ez dira Euskal Herriko beste abertzaleak bezalakoak. Eta ez ditut homogeneizatu nahi, baina uste dut badela hautu oso kontziente bat banderetatik ihes egiteko, eta azpiko lan hori egiteko. Ez dut uste praktika kontra-abertzale bat denik, baina bai abertzaletasunaren irudi hegemonikotik ihes egin nahi duen abertzaletasun berri bat. Eta uste dut hori dela bide bakarra une honetan euskarari irtenbide bat bilatzeko. Agian aldentzen da alde identitariotik, baina hurbiltzen da eraldatzailetasunera. Ez dugu euskara lantzen euskara delako. Haratago doan zentzu bat du.

“Ez dago lekuko bat, eta ez dugu inork eramaterik behar. Gaur egun lekukoek, edo aitzindaritzek, atzera botatzen dute. Jendea da euskararen alde egin behar duena”.



Zer da gaur egun gazte bat euskaltzale izatea?

Gazte euskaltzalearen figura definitu nahian gabiltza. Uste dugu galdu dela, eta berreskuratu edo birformulatu edo sortu behar dela. Izaera bat behar du, balio komun batzuen baitan artikulatzen den izaera bat. Eta kutsatzen dena, ez dena sarean gauden kideon altxor bat.

Nola erakartzen dira belaunaldi berriak euskararen aldeko borrokara?

Gehiengo batek saltoa emateko, hautua orain dena baino errazagoa izan behar da, eta instituzioek ahalbidetu behar dute hori. Politizazio maila bat ere behar da, jendeak uler dezan zergatik behar dugun euskara. Nire kasuan ez da euskara pila bat maite dudalako –eta maite dut–, baizik eta tresna bezala ikusten dudalako, gizarte berri bat eraikitzeko. Eta hizkuntzari dagokion ekosistema guztia ere aldatu behar da: euskaraz kontsumitu, kontraesanak euskaraz izan, jai esparrua, militantzia eta ikasketak euskaraz egin, euskaraz gozatu...

Hor datza saltoa euskaltzale izatetik euskal hiztuna izatera?

Zati batean auzi pertsonala da, baina gurtzat, auzia batez ere kolektiboa izan behar da. Gazte euskaltzale bakoitzak, banaka, euskaraz bizi nahi duela erabaki eta erabilerara salto egitea, noizbait etengo den bidea da. Gaur egun euskaraz bizitzea ezinezkoa da, batez ere indar korrelazioak kontra jotzen duen tokietan, hau da, Euskal Herriko leku gehienetan.

Zuretzat zer da euskaraz bizitzea?

Zerbait ezinezkoa, gutxi batzuk egin dezaketena. Nire perspektibatik, zerbait nekagarria da, beti gazteleraz bizi izan naizelako, eta euskara oso eremu konkretuetan erabili izan dudalako, militantzian edo ikasketetan. Kalean oso gutxi. Nekagarria da euskaraz bizitzeko tresnarik ez dugulako. Baina ez bakarrik kaleko hizkuntzarik ez dugulako, baizik eta eskubiderik ere ez dugulako. Euskaraz bizitzea momentu oro harresi baten kontra jotzea da. Nahi dugu, baina ezin dugu. Utopia da.

Krisian dago euskalgintza?

Euskararen aldeko borroka esparru batzuetan agortu da. Batez ere, euskararen aldeko jarreraren destentsionamentua

egon delako. Horren erantzule bakarra ez da euskalgintza, baina erantzuleeta-ko bat bai. Gure kezka hortik sortzen da: belaunaldi berri bat euskararen aldeko borrokara engantxatzeko metodo berriak behar dira. Zerbait freskoagoa, eta engantxatzeko gaitasuna duena. Eta horrek ez du esan nahi euskalgintzak egindako lan guztia alde batera utzi behar denik, eta zerotik hasi. Uste dut badirela oraindik ere potentzialtasuna duten borroka historiko batzuk. Baina gazteekin konektatzeko formula berriak behar dira. Horien bila gabiltza.

Lekukoa hartzeak aurrekoa ordezkatzeko dakar?

Ez dugu asmorik inor jubilatzeke [barrez]. *Lekukoa hartzeke prest gaude* leloa erabili dugu, baina ez dugu lekukorik nahi. Lekukoa inork izatea ez da ona bere horretan. AEK-k izango du helduak euskalduntzeke borrokaren lekukoa, eta Kontseiluak izango du hizkuntza politika integralak irabazteke lekukoa. Ez dago lekuko bat, eta ez dugu inork eramaterik behar. Gaur egun lekukoek, edo aitzindaritzek, atzera botatzen dute. Jendea da euskararen alde egin behar duena. ●

New Yorkeko pizzak eta Moskuko hanburgesak


 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Batzuek etorkizuna kafearen konderrei begiratzuz igartzen dute eta besteek zabor-janaren prezioari begiratzen diote nazioarteko politikaren eta ekonomia-aren galdera handiei erantzuteko. Diferentzia da lehenbizikoei ez diegula kasu putzik egin behar; eta bigarrengeoi berri-zeozer gehiago, tontolo-montolo egunkarietan ere lekutxo bat lortzen hasiak baitira. Horri esker jakin dut nik behintzat AEBetan arduratuta dabiltzala bizitzaren garestitzearekin, zergatik eta “New Yorkeko pizzaren printzipioa” puskatu egin delako.

Idatzi gabeko lege baten arabera, Errezil Handian pizza zati batek kosta behar du metroko txartel batek adina: 1980tik kalkulatzen dute bien arteko erlazioa eta nahiko parekatuta egon izan da, azken hilabeteetan pizza pus- karen batezbesteko salneurria 3,14 dolarreraino (2,98 euro) igo den arte, metro-txartelak hiru dolarren koska pasa gabe jarraitu arren. Zabor-jana gustu hutsez irensten du jende askok, baina badira, eta ez gutxi, pizza zati ge- roz eta garestiago horren kalorietara jotzea beste erremediorik ez dutenak egunaren amaierara iritsi ahal izateko.

Pizzaren printzipio ekonomiko hor- rrek badu lehengusu bat: *The Economist* aldizkari ultra-mega-neoliberalak argitaratzen duen *The Big Mac Index*, zeinak McDonald’s-en hanburgesa ezagunenaren mundu osoko prezioak konparatuz dibisen truke-balioaz eta herrialde bakoitzeko eros-ahalmenaz modu informalean hitz egiteko balio duen. Errusia ez da agertzen jada indi- ze horretan, McDonald’s-ek maiatzean herrialdea utzi baitzuen, Ukrainakoa ez zitzaielako *happy meal* bat iruditu preseski.

Ekainaren 12an ireki dituzte haren ordez funtzionatuko duten hanburge-



McDonald's-en ordez Errusian ireki duten hanburgesa-kate berria.

sategiak eta algar batzuk sumatu ditut esfera atlantistako hedabideetan, urre koloreko arkuen ordez Moskun ireki duten *Vkusno i totxka* izeneko hanbur- gesa-katea imitazio eskas bat dela adie- razi nahi balute bezala. Inaugurazioak izan du kapitalismo berantiararen sin- tomatikoa den protesta bat ere: “Itzuli *Big Mac*-ak” zioen kartel batekin agertu da gazte bat eta eszena geratu da es- pazio-denboran eten bat gertatu izan balitz bezala.

Izan ere, Putinburger berriak saldu- ko dituen lokal horietako batean sar- tzea unibertso paralelo baterako atea zabaltzea bezala izan daiteke, non his- toria beste modu batera gertatu zen, Berlingo Harresia erori ondoren hege- monia yankia ez zen erabat nagusitu, ekialdeko blokeko herrialdeetan gai izan ziren berezko kapitalismo-eredu bat garatzeko, beren marka, logotipo

eta antzeko txorakeria guztiekin, uni- bertso honetan jo dugun erreka bera jotzeko: obesitate-arazoak izango di- tuzten bezero berdinak, berdin jantzita, berdin-berdin eskas geratzen zaizkien soldaten parte bat gastatzen argazkie- tan beti zapoetsuagoak diruditen han- burgesa koipetsu eta merkeetan.

Baina serio xamar idazten dugun sail honetan, New Yorkeko pizzekin bezala, Moskuko hanburgeseekin ere asuntua- ren inplikazio sakonek inporta dute. Za- bor-jana nahi duzuna izango da, baina McDonald’s-en suzedaneo errusiarrak ireki duen enpresak lana emango die bestela zintzilik geratuko ziren hanbur- gesa-kateko 60.000 enplegatuei. “Izena aldatu da, maitasunak bere horretan di- rau”, dio enpresa berriaren esloganak. Hilabetero patrikan billete zimur ba- tzuk sartzeko aukera maitasuna balitz, ez litzateke guztiz gezurretan ariko. ●



2 URTE ARGIA BIZIKLETAZ BANATZEN

GASTEIZ
DONOSTIA
IRUÑEA
HENDAIA
IRUN
HONDARRIBIA



ZER EGIN DEZAKET?

Zure herrian halako banaketa sistema bat
sustatzeko aukerarik ikusten baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

komunitatea@argia.eus (+34) 943 37 15 45

JORGE
Oteiza

EDUARDO
Chillida



DIALOGOA

50EKO ETA 60KO URTEETAN

2022.04.09
2022.10.02

Erakusketa

San Telmo Museoa

Zuloaga pza. 1 20003 Donostia / San Sebastián

www.santelmomuseoa.eus

Antolatzaileak:

STM
San Telmo Museoa

 **DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

DX
donostia
kultura

Laguntzailea:

 **Fundación
Bancaja**

Erakunde babesleak:


 **EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
POLITIKA ERANIKATZA
PAGURUA GALIA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y TURISMO VASCO

Gizuzenako
Foro Albandia
Puzari, Lantzetan, Duetan
eta Aste Zuzen-entzuzan




 **ETORKIZUNA
ORAIN**

Patrono pribatuak:

 **eitb**

 **EL DIARIO VASCO**

 **kutxa**
FUNDAZIOA